zeruko
ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

ARCHIVO

NON ZER

- «BIZITZA ETA MUNDUA ALDATU» Torrealday ... 3 garrenean
- SIGMUND FREUD Irastortza ... 3 garrenean
- TXILETIK DATORREN ITSAS ONTZIA Luka ... 5 garrenean
- MUSEOA EGUNGO MUNDUAN Kortadi ... 6 garrenean
- LIBURUEN URRATSETAN Lertxundi ... 7 garrenean
- USTE GENUEN Arostegi ... 11 garrenean

JOSE MARIA SETIEN

GOTZAI BERRIA

"Izkuntza ez da burutapenen eta sentipenen tresna utsa"

«Izkuntza ez da burutapenen eta sentipenen tresna utsa»

«Neri gotzaitzarako aukeratzeak, Gipuzkoako kristau eta giza-elkartearentzat lan egiteko gogoa erne didala uste dut. Edozein azkundetan, jokoan eta arriskuan dagoena, gizona da. Ekonomiazko azkunde soila ez da gauza giza-bizitzari erantzuna emateko. Gizartearen aurreratzea ez diteke gizona desegiñaz egin. Elizaren arazoa da gizartearen arazoak bizitzea eta elizkizunak berak ere arazo oietara irekiak egon behar dute bestela, uts eta loarrazle dira».

Arantzazura joan beharrean aurkitu gera. Il onen 28an egingo dute Gotzai, Joxe Mari Setien. Gizarteko arazoez kezkatutako gizon feddeuna izan dugu beti Joxe Mari. Beronek landu beharrezko gizartea zelakoan ekin zion apaizgaitegitik euskera ikasteari. Erroman zegoelarik ere euskeraz egiten zituen etxera eskutitzak. Baiña erbeste aldera jo beharrean aurkitu zen bere gogoz kontra. Arantzazun dago Joxe Mari bienbitartean lantzerik izan ez duen euskera lantzen, Euskal Erriaren izaeraz eta nortasunaz gehiago jabetu nahirik.

—Zer sentipen dituzu nagusi zure burruan Aita Santuak Donostiako Gotzai lagutzaile izendatu zaituenetik?

—Ez da erraz barruko egoerari igertzen; ez eta norbere barrukoari ere. Elkarren aurka dauden sentipenak nabaritzen ditudala nere baitan ukatzea, egia izkutatzea litzake; ez diteke ahaztu oso elkarren aurkako sentipenak sortzeko gai den egoerak erasaten didala une ontan. Baina Aita Santuak ni gotzaitzarako aukeratzeak, neri Gipuzkoako kristau eta giza-elkartearentzat lan egiteko gogoa erne didala uste dut. Beste guztiak ahazten saiatzen naiz.

—Nola ikusten duzu Gipuzkoako kristau-elkartea?

—Joera eta indar ezberdiñez, ots, gizarte, kultura eta erlijio joera eta indar ezberdinez landua ikusten dut Gipuzkoako kristau-elkartea. Joera ezberdin oien eraginaz, sinestun sendoago bat sortu beharko luke. Baina indar oiek elkar desegiteko ere izan ditezke. Azten ari da Gipuzkoako giza elkartea ekonomi, gizarte eta kultura alorrean; baina azkunde ori sinestunez eta sineskabeez osaturiko giza-elkarteari zor dio. Ez digu kristauoi bakarrik zor. Orregatik Gipuzkoako kristau-elkartearen lanik nagusiena, bere burua ezagutu eta aurkitzea da, dagokion lekua izan dezan gizarte ontan eta azkunde ontan.

—Gipuzkoako aurrerapen eta zabal-min aundi orrek uzten al du sinesmenarentzat tokirik?

—Bai, tokia uzten du; baina toki ori aurktizea zailagoa da. Edozein azkundetan, jokoan eta arriskuan dagoena, gizona da. Zaila ez da kristau sinesmena bakarrik; bizitzari sentidua eman dezaioken edozein sinieste da zaila. Ekonomiazko azkunde soila ez da gauza giza-bizitzari erantzun betea emateko; aldiz, giza-bizitzaren sentiduari buruz, galdera bera egitea ere zaildu egiten du. Baina beti izango dira azken etorkizun eta geroari bergiratuko dioten gizonak. Baita giza-bizitzaren sentiduaz galdera zorrotzak egingo dituztenak ere.

—Zure gotzai-sail ontan zer ikusten duzu pozgarrien?

—Besteekin pentsatzeko eta besteei zerbitzeko egokiera bikaina eskeintzen zaidala uste izatea da neretzat pozgarien.

—Beldur piska bat?

—Nork bere buruari ezezkorik eman gabe, erabat besterentzat ezin izatea da beldurgarrien. Au garbi erakusten digu Nazareteko Jesusek. — Emengo erri-giroa, ametsak, eziñak, kezkak ezagutzen dituzu, noski. Sasoiko ikusten al duzu gure gizartea, ala gaixorik? Ala jaioberritzen? Ala osasuna galtzen?

—Giza-izate osoan, izate orren luze-zabalean ernemin eta bizi-altsumak daudenean dago sendo gizartea; baina gizartearen aurreratze au ez diteke gizona deseginaz egin. Gizonak pertsona bezala duen ezin ukatuzko balio au gizarteak, ez itzez bakarrik bai eta egiaz ere aitortzen duenean, orduantze da nere ustez gizarte ori sendoa. Badu Gipuzkoak indarrik baina zentzu eta zuzentasun gehiago ere behar luke.

—Zer da zuretzat gaur bat bere erriaren erdian?

—Sinesmeneko gizoan, gaur eta emen kristau-elkarteari, ori zer den ikusten lagunduko dion fededuna, alegia.

—Gotzai zeranez zer egitarau nagusi dituzu oraingoz?

—Gotzai izanarren, ez naiz Donostiako Gotzai. Kristau-elkarteari zerbitzea da nere lanik nagusiena baina elizbarrutiko Gotzaiaren lan-eraketaren baruan; ez ditzaket eginkizun eta elburu ezberdinak ar. Bestela nere betebeharra sabiestuko nuke arrunt.

—Zerorri emengo seme izateari zer alderdi on aurkitzen dizkiozu? Eragozpenik?

—Erbesteko izanaz baino obeto ezagutu, ulertu eta senti ditzakedala uste dut erriaren arazoak. Ez dut alderdi ontatik zailtasunik ikusten. Ezagunegia izateak, orduan akatsak ere nabarmenagoak bait dira, izan dezake eragozpenik; alere, egia jakiteak ez du galerarik.

—Apaiz lagun asko duzu, inondik ere, Gipuzkoan: zer eskatzen eta zer eskeintzek diezu?

—Zerbait aundia da nerotzea adiskidetasuna, baina nere eskaera eta eskeintza ez ditut adiskidetasun-lokarietan oinarritzen. Lanerako nere gogoa eskeintzen diet guztiei; eta nere zuzen edo jardutearen gainetik, bakoitzari bere lanak txukun egitea eskatuko nioke. Gotzaia ez da edonor, eliz-elkartean; baina bakoitzak bere betebeharrerako duen erantzunkizuna, gotzaiak egiten duenaren edo egin gabe uzten duenaren aurretik dago.

—Zu, zeure apaizgintzan, eliz-gizon baino maisu eta igarle gehiago izan zera, au da, elizkizunak egiten baino erakusten eta gizarteko okerrak salatzen gehiago jardun zera. Ala izango ote gotzaintzan ere?

—Nik Elizaren gizon bezala jokatu nahi izan dut beti; ez naiz nere iritziak erakusten jardun. Gizonaren eta gizartearen arazoak sinesmen-argiz aztertzen baizik. Elizaren arazoa da, gizartearen arazoak bizitzea eta elizkizunak berak ere arazo oietara irekiak egon behar dute, bestela uts eta loarrazle dira. Urrutira eramango gintuzke galderra onek, baina ez dut uste orain ortaz jardun gaitezkeenik.

—Naiz eta kanpoan egon beharra izan nik uste baino errazago mintzatzen zera euskeraz. Zenbaterainoko ajola gotzaiaren ezpainetan erri-izkuntza eta kultura-arnasak?

—Auxe da nere buruausterik aundienetakoa; izkuntza ez da burutapena eta sentipenen tresna utsa, oiek tajutu ere egiten ditu nolabait; orregatik daude biak, kultura eta izkuntza, ain estu loturik. Kristau izatea ez da bakoitzaren izateari ezartzen zaion eranskin bat; kulturak pertsona bera tajutzen du; kulturaren zainetatik, gizona bera tajutzen eta osatzen duten erro oietatik ez bada, ez dizaiokegu inori lagundu kristau izaten. Ez nau izkuntzaren ederrak edo euskera ondo baino obeto itzegiteak gehienbat aztoratzen; Erriaren errikera eta kultura aurkitzeak kezkatzen nau. Nere ustez, izaera orrek kristau fedetik osotasun aundiagoa artzen duelako, naiz fededun.

—Zer eskatzen diguzu ZERUKO ARGIAren irakurle eta idazleoi?

—ZERUKO ARGIAri, diren bezala eldu dizaiela arazoei; ez dezala egia morroi bihur; egiaren mirabe izan dedila; aipatu beharezko arazoak ez ditzala baztertu. Irakurleei, berriz, kritika dezatela aldizkaria bere eginkizuna bete dezan.

—Gazteenzat itz bat?

—Bai. Ez ditezela utsunean bizi. Lehegoari egiten dioten kritika baieztu dezatela gaur beren bizitzaz. Geroari begira, bila dizaiotela bizitzari xedea, ez dezatela kristau sinismena nolanahi baztertu, zaharragoen akatsetan lausoturik, egia garbian fede ori aztertu gabe.

—Emen bertan eta emendik kanpo, neke aunditan diran gaixo, zahar, ezbehartu, zigortu, erbestetu, saminduentzat?

—Lotsa ematen dit nere aragian jasan gabe, minez daudenei itzegiteak. Itz uts lirake. Badala Jainko Salbatzaile bat esatea besterik ez naiz ausartzen.

ERRIALDE

(c) Ministerio de Cultura 2005

BERTSO BERRIAK

Aurtengo arraun-jaiak bukatu ditugu.

Noizik eta bein bertso bialtzen diszkigu Lezo'ko Marzelino Manterola'k.

Al degun guztian, tokirik izan ezkero beintzat, ateak zabaltzen dizkiogu.

Iñok uka ez lezakena, aurtengo urteontan (lenagotik ere bai baiña), Lujanbio patroiaren izena oso goitik gelditua da.

Egiñak ordaude bixtan, eta berriketak eztute balio egintzen ondoan.

Manterola lezoarrak Lujanbio artu du bertso-gai bezela, ta onoko auek eskeintzen dizkio:

— 1 —

Gidari on bat izatezkero
zu bai zerala benetan,
erakutsia daukazu garbi
egin dituzun lanetan;
mutillak beti trebe jarriak
beren eginkizunetan,
argatik zabiltz beti aurretik
zoazen leku danetan.

— 2 —

Zuretzaz ezta baliza txarrik,
eta itxaso zabarrik,
ain gutxi berriz olatu eta
bueltak artutzen okerrik
Arraunak zuzen, mutillak zimel,
ezer eztago alperrik,
ezpaita aski indarra sobre
edukitzea bakarrik.

— 3 —

jaioterria apaindu ondoren
kopa eder da banderez,
len baju zeuden auzo erriak
jantzi dituzu onorez.
Gaur Gipuzkoa beterik dago
balio aundiko landarez,
bear bezela oiek ezitzen
asi zaitea, mesedez.

— 4 —

Zu, Joxe Anjel, ortarakoxe
sortu ziñan egun batez
sasoi ederra daukazu oraindik
eta aprobetxa zaitez.
Karmen'go Amak zaitu zaitzala
aparteko borondatez,
nere zorion beroak artu
bertso auetxen bitartez.

etxean degu gaitza

— 1 —

Zarautz erritik apalki nator
Aloñaren magalera,
ezin gorderik dauzkadan kontu
batzuk zuri esatera.
Ama laztana, entzun, arren! zuk
bertsolari eskaera,
bein bear eta Euskalerrian
zure bearrean gera.

— 2 —

Emen agertu ziñan garaian
zer naigabe ta samiñak,
esan zeikean danak zeudela
oso burutik egiñak;
Oñaztar eta Ganboatarrak,
lapurrak eta sorgiñak...
orduko marka guztiak orain
ez al daude eragiñak?

— 3 —

Ama maitea, zeure almena
garbi agertu zenduan,
arro ziranak apaldu ziran,
ta bearra bagenduan.
Otzago edo epelagoa,
fedea bazan orduan,
orain erabat galdu degu-ta,
animalien moduan.

— 4 —

Gure lurreko goraberak gaur
zein negargarri dabiltzan,
ekaitza pranko ikustekoak
gera munduko bizitzan.
Munich, Viet-nam, ta beste ainbat
beti aotan ez izan,
begira zazun, O, euskaldunok,
etxean nola gabiltzan.

— 5 —

Alkar arteko adiskidetzak
joanak ditugu igesi,
iñorentzako errukiriz ez,
danerako geu lenbizi.
Au egia da, anai maiteok,
eta ukatzen ez asi,
alkar ikusi baiño naiago
suge-gorria ikusi.

— 6 —

Bizkar gaiñean artuak gaude
makiñabat danbateko
ta motiborik asko badegu
berriz kezkaz egoteko.
Deabruaren almen aundiak
artu gaitu gu menpeko,
len igaroak naikoa ezta
odol gorria tarteko.

— 7 —

Sendatu gabe dago oraindik
erri zar onen zauria,
beldur ikaraz jarria nago
sortu leikela berria.
Berriro ere infernu bizi
laister da Euskalerria,
maitetasunak artzen ezpadu
gorrotoaren tokia.

— 8 —

Lenez gaiñera ez gaitezela
anai artean zatitu,
zentzuz osatu gaitezen ondo,
umekeriak garaitu.
Gure lur onek begiak goruntz
Zugana jaso nai ditu,
ta okerrena gerta baiño len
Ama, gutaz errukitu.

— 9 —

Anaiak nola ibili leike
alkarrekin arakintzan,
noiz jarri bear degu apalki
Jaunaren serbitzaritzan?
Gure babesle paregabea,
erri au kontuan izan,
olatu trakets, ondagarriak
azpian artu ez gaitzan.

BASARRI

NERE BORDATXOTIK

Legazpi'ko erriak bi auzo entzutetsu ditu: Telleriarte ta Brinkola.

Martin Ugarte jauna, Telleriarte'ko "Saletxe" baserrian bizi da. Sortu ere antxe egin zan. 1916'garren urteko otsaillaren bigarren egunean etorri zan mundura.

Patrizio Etxeberria jaunaren lantegi sonatuan egiten du lana. Etzaio ordea aski angoarekin.

Sei-zortzi buru ba-dauzka baserriko ukulluan, eta aiek ere eskatzen dute lanik asko.

Alare, Martin Ugarte jaunak nobela bat idazteko beta ta astia artu du. Berak jakingo du nola.

Olerkari (poeta) bezela ezagutzen genduen Ugarte. Aren lan batzuk itz-neurtuz irakurriak gera orain baiño lenagotik.

Orain, berreun da bost orrialdeko liburua argitaratu du itz-lauz, au da: "prosan".

Aita Onaindia karmeldar argiak idatzi ditu aurre-itzak.

Klasiku sailleko nobela dala esaten digu Aita Onaindia'k Ugarte'k idatzi duen au.

Nobela au, gaiaren aldetik, errikoi-errikoia da: euskalduna lau aidetara.

Ikazkintza, meatz-lan (mina-lan), sendakintza, sorgin, auzo-lan, baserri-erretze, bizimoduak ain bere dituen kezka ta istilluak; muga-zaiak, enplasteroak, ba-da or danetik.

"Zazaleta" baserrira ezkondutako "Arriatxo" da nobelaren ardatza, izaki nagusia, personaje gaillena.

Bereak eta bi ikusia, arranek ezik, bizimodua aurrera eramateko.

Denbora garratzak ordukoak.

Nekez irabazten zan txanpona, ta irabazi bear zuenak gorriak ikusi bear.

Gizona negarti da beti, ta gaur, bear bada, sekula baiño negar geiago egiten degu.

Alderdu askotatik begiratuta, eztegu esango negar egiteko moduan ez gaudenik, baiña "Arriantxo'k" etzuen ezagutu oraingo erotasunaren kerizik ere.

"Arriantxo'ren" gorabera latzak irakurrita, gure aurreko guraso zaarrak datozkigu burura.

Ur gutxierekin igeri egin bearra izan aiek, familiak aurrera ateratzeko. Ondo penatuta irabazi zuten eguneroko ogia, "sala de fiestas" izenekoetan traba aundirik eman gabe.

Elektronikaren eta Konputadoreen aldi ontan, nola aukeratu diteke onelako gai bat?, galde lezake gazte ausartsu batek baiño geiagok.

Erantzunik egokiena egilleak emango die. Onela dio:

"Izan ere, igaroan aztarrik ez bagenu, ondorearen suntsurik ez dugun gisa, zer genuke egungo une urri au illunpe soilla ezik?

Baserritar batek, sustraitik, errotik ezagutzen duenari ekin bear dio. Artzen duen sailla ondo jorratzen jakin bear du, Ugarte'k egin duen bezela.

Montaigne frantzez idazle sonatuak etzituen begiz ikusi nai izaten beren barrutia alde bat utzi ta auzo barrutietan sartzen ziran idazleak. "Zapatero, a tus zapatos", esango bazukean bezelatsu.

Martin Ugarte'k ba-daki nundik noradabillen. Artzai onak ardirik kuttunenak bezela ezagutzen ditu aitatzen dituen lan-molde guztiak.

Gu ez goaz nobelaren balioa aztertzera ta aitatzera.

Izango ditu bere akatsak, izango ditu bere gorakoak eta beerakoak: zati onak eta aultxoagoak.

Beldur gabe esan dezakeguna au da; euskeraren aldetik begiratuta, aspalditxoko urtetan eztegula irakurri legazpiar baserritar onen euskera bezin aberatsik eta oparorik.

Utsune txiki batzuk ba-ditu, Goierrian aspalditxoan sarturik dagoen gaitz bat dala bide.

Ugaltzerakoan, (pluralizatzerakoan), bearrezkoa dan letra baten utsunea somatzen degu pasarte bakar batzutan.

Adibidez:

"Autxek dira neri eman zidaten xeetasunak".

Onela bearko luke legez:

"Autxek dira neri eman ZIZKIDATEN xeetasunak.

Ainbat edertasun lilluragarriren ondoan, uskeri batzuk Martin'ek aixa zuzendu ditzakenak. Zenbat esaera ernegarri!

Ikus ditzagun Aita Onaindia'k izendatzen dituen batzuk. Martin'en liburutik artu ditu:

"Maitasun erneera; naste geiegia ontzi baterako".

"Akulu bete lur etzeukaten lantzeko".

"Txapela bete legor etzitzaien gelditu".

"Bera zan akulu ta ezten".

Garitza aundia dagoenean esan oi dana:

"Atzamar birekin ogia jan bearrean zerate, noski".

Onelatsukoak orritik orrira dauzkatzu, irakurle.

Martin Ugarte'k euskeraren arrobitik atera du arri guztia. Ezta itz berriak sortzen nekatu; eztarabilki "neologismorik". Euskeraren arnaskadak dira liburu ontakoak.

Guk bear bezin ondo jasotzen ezpaditugu, etekin osoa ateratzen ezpadiegu, bear ainbat euskera eztakigulako izango da.

"Botanikan" ere erakusten digu liburu onek. Sendagille jaunaren eta "Arriantxo" enplasteroaren arteko alkar-izketa irakurri besterik eztago.

Bijoazkio gure zorionik gartsuenak legazpiar bizkorrari.

Zu etxerako, zu!

Garbizaletzat epaituko zaituzte, agian. Ez ikaratu!

Euskal sagarraren zumoa da kupelean sartu dezuna. Beste edari batzuk nasten ibili baziña, antzemango genizun. Bear bada, geu izango giñan salatzaille.

Euskera mendean dezu, ta zure liburuari duen kutsu osoa atera naidionak, lenengo orixe jakin bear du: euskera.

Liburuaren izenburua: "On Egiñaren Obaria".

Itxarpena Argitaldaria. Zarautz.

Basarri

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

LA CASA DEL CAFE

Juan Friondo

San Marzial, 19 - Urrut. 413801
Donostia

Bizkortasuna

Serbitzu egoki baten izena.
Gure jardun guztietan
beti elburu bera:
Arazo bakoitzarentzat erantzunik onena.

Egunero gure lantokietan aztertzen, zuzentzen
eta konpontzen ditugun eginbeharretako
bizkortasuna

Eta gure serbitzu baliosekin batea
arrerarik atseginena

Etor zerori eta ikus

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA

SERBITZU BIZKOR ETA ATSEGINA

(c) Ministerio de Cultura 2005

Gotzai Berria

Badu bere garrantzia Gipuzkoako erriarentzat eta Gipuzkoako kristau-elkartearentzat Gotzai Laguntzailea izendatzeak. Guk nahi badugu eta nahi ez badugu badu bere indarra Elizak. Eta badu bere indarra Gotzaiak. Horregatik nahi izaten dugu indar harrek aldero egin dezala gure aldera.

Kristau-erriari eta apaiz-jendeari gehiegi galdatu gabe aukeratua izan bada ere, aitor dezagun kristau-elkartearen onari bakarrik begiraturik autatua izan dela. Oraingoan ez da goiko zenbaiten gogoa egiteagatik izendatua izan. Agintedun zenbaitentzat mingarri izanarren Jainko Erriaren onari begiratu zaio. Hau benetan pozgarri eta eskergarri zaigu. Behar lituzke kristau-erriak honelakoetan auta-bideak, baina ez da erraz oraingoz. Gainera aitor dezagun gutxienik "apaiz-batzordearen" iritzia onartua izan dela hontan eta kristau--erriak eta apaiz jendeak aukera zezakeen gizon batetan jarriak izan direla begiak.

Aukera zitekeen gizonik egokienetakoa autatu dela uste dugu eta kristau-elkartearen gogoa bete dela.

Ez goaz Joxe Mari Setienen goralpenik egitera, ez bait du gure goralpenen beharrik. Baina zenbait pentsakizun jaulki nahi gintuzke jendearen errotara. Ez dezagun pentsa gure Erriaren eta hemengo kristau-elkartearen gaitz guztiak senda ditzazkeenik. Ez dezagun ar Mesias mirarigiletzat. Ez dezagun ar erortzen ari den mundu zahar baten eustailetzat.

Eska dezaiogun Eliza uztartua dagoen uztarritik askatzen saia dedila. Kristau-elkarteko beste edenorrek baino indar gehiago du hortarako gotzaiak. Ez dedila dirudunen eta agintedunen morroi izan. Egon dedila erriko jende behartsuaren zerbitzuan. Egon dedila kristau-elkartearen zerbitzuan. Jardun dedila egiaren mirabetzan.

Baina hau guztia betetzen kristau elkarteak lagundu behar dio. Hortarako gizartean zer leku behar duen jakin behar du kristau-elkarteak. Gizartearen zerbitzuan dagoen sinestun-elkarte bat besterik ez dela jakin behar du. Gizon bakoitzak onartzen duen eran eta neurrian gizonaren bizitzari erantzun osoago bat eskeintzen dion elkarte xume eta apala dela. Azken etorkizun eta geroari buruz galdezka ari denari eta gizonaren sentiduari buruz kezkatua dagoenari itxaropentsu bezain dardartiar den erantzun bat eman nahi dion sinestun-elkartea dela.

Bukatu da eta behin betirako, nik uste, Erri osoa kristau-erri izate hori. Erri osoa sinestun izate hori. Euskaldun fededun izate hori.

Erriaren errikeran, kulturan, izkuntzan, kondairan eta aurrera-bidean txertaturik jardun behar duen fededunen-elkartean bere lekua du Gotzaiak. Ez jauntxo lekua, zerbitzari lekua baizik. Ez dezagun dena Gotzaiak eta Gotzai-laguntzaileak, ain zuzen, konpontzea nahi izan. Ezin du eta ez dagokio.

"Gotzaiaren zuzen edo oker jardutearen aurretik eta gainetik bakoitzaren erantzunkizuna dago". Ez dezagun ahantz. Gaur, Jainkoari eskerrak, gero eta gutxiago dezake gotzai batek, nahiz eta oso argia eta langilea izan.

Bazan garaia eta noizbait ireki dizkizu ateak zure Erriki kristau--elkarteka. Elkarte hortako askok lehen ere irekitzen zizkizuten Ongi etorria zure Errira eta zure erriko sinestunen-elkartera. Onerako izan dedila.

SIGMUND FREUD

Ez da azti bat. Ez da sorginkerlazko bihurrikeriak egiten dakien norbait, gizonaren barrua irakurtzen dakien jakintsu bat baizik. Baiña nik ez dut giza-barrunbeari buruz duen iritziaz mintzatu nahi. Gizonaren barruan aurkitzen dituen hildo, zauri eta galtz asko kanpoko norbaitek edo zerbaitek egiñak dira. Gizarteko arazoak irakurtzen daki gizonaren barrunbean. Ez daki gizarteko arazo holek nola zuzendu, baiña erdiz-erdi asmatzen eta salatzen ditu asko.

Freud ez da sozialista bezala hartzen. Ez zuen gizarte berdinago bat egiteko ametsik ere egin, agian. Baiña bai argazki ederra atera ziola bere garaiko gizarteari gizonaren barruko gaitzak ikusiz. Gizarteko ahaldunek eskuratu dituzte gizon izateko bide guztiak agintaritzaren, gizalegearen, ordenaren, neurriaren... aitzakiz.

Egiazko egoera da hau. Hain egiazkoa! Gizonaren jokabidearen iturritzat har diteke. Baiña uka eziñezkotzat ez ezik alde eziñezkotzat ere jotzen du egoera hau. Alferrikakoa da aurka egitea. Barruko gaixotasunetik eta larritasunetik ateratzeko bide bakarra egoera hontan ondo itsastea da. Beste sendabiderik ez dauka barru larriko gizonak. Ez dago pakoitzari dagokion janzkerarik egiterik. Egiña dagoenera ahal den ondoen moldatu behar da.

Ez da harrotzekoa Freud-ek egoera hori gorrotatzea. Mendean hartzen bait du gizona gizarte zapaltzaille eta menderatzailleak bere arau eta legeaz. Beste gizon arrotz bat sortzen dute gizonaren barruan, gehieneta debekatzaille diren arau eta lege hauek. Gizon bakoitza gauzak epaitzeko, neurtzeko, pentsatzeko eta erabakitzeko ezaguerara heldu baiño lehen beste gizon arrotz batek, beste «ni» arrotz batek menderatzen du. Gizarte zapaltzailleak ezartzen dion «ni» arrotza gaillentzen zaio. Nahitaez gizarteko egoeraren alde jarri beharra, duen «ni» arrotza.

«Ni» arrotz horrek dolareak sagarra bezain estu zapaldurik eta leherturik dauka nere egiazko «ni» etxekoa. Horregatik porrot egiten du gizartearen egoera galgarri horren aurka dabilen hainbestek eta hainbestek. Marcuse-k dionez gizarteko etsai zanpatzaille hori besterik ez da «ni» arrotz hori. «Ni» arrotz horren jostaillu bat besterik ez da neure egiazko «ni» hori. «Haren» esanetara dago denerako «hau». Ez du beregisa ezer egiteko ahalmenik eta eskubiderik. Zeharo atxikia eta lotua dauka.

Holaz guziz ere ohartzen ari da piskana piskana «ni» zapaldu eta erdihil hori bere egoeraz. Eta azpitik atera egin nahi luke. Askatu egin nahi luke, nahiz eta ez beti bide egokiak har: kirola, zinea, autoa, drogak... Bide horrek bizitzara, ez heriotzera darama nere egiazko «ni» hori.

Baiña Iñoiz kukurruku jo ere egiten du azpi-azpitik eta «ni» arrotz eta gizarteko etsai zapaltzaillearen aurka altxa ere egiten da. Baiña kanpoko erasoa ez ezik barruko korapilloa ere ez da berriketakoa izaten. Erru eta pekatu irudipenak jartzen zaizkio «Ni» arrotzak erabakitzen dio ona ala txarra dan. Gizarte menperatzailleak ezartzen dio «ni» arrotzaren bidez onaren eta txarraren bereizkuntza. «Ni» arrotzari ondo dagokiona ona da eta gaizki datorkiona txarra da. Beraz, gizarte menperatzailleari ondo dagokiona ona da eta gaizki datorkiona txarra da.

Nola erauzi erruaren eta pekatuaren ustea eta irudipena? Freud-ek ez du hortarako biderik sumatzen. Gaitzesten eta gorrotatzen duen gizartean murgildurik datza. Ez zaio bi «ni» hoien, arrotzaren eta etxekoaren artean pakeak egitea baiño bide egokiagorik bururatzen. Biak adiskidetu. Bien etsaigoaren gaiñetik jarri. Ez barruko egoera eta giroa txartu, goxatu baizik.

Baiña hau egiazko «ni» hori zeharo itotzeko bide da. Lehen baiño azplago jartzeko bidea.

Bazterturik eta isildurik dagoen nere egiazko «ni» hori askatzetik ablatu behar dugu. Iraull diteke gizarteko egoera. Uxa diteke nere barrutik «ni» arrotza. Beste askabiderik ez da.

IRASTORTZA

"BIZITZA ETA MUNDUA ALDATU"

mahain - inguru baten inguruan

Agertzen diren idazlan eta egin diren bilkuretatik epaitu behar baldin bada, Frantzian, urte honetan, eztabaidagunerik estimatuenetakoa izan da hauxe.

Gizona bere inguruaren kontzientzia hartzen ari da. Ez dela bera bakarrik mundu hontan bizi, ez dagoela lurrean bizi-iturriekin nolanahi ibiltzerik. Gizona gero eta gehiago geroari begira bizi denez gero, oraingo martxan mundua baldin badoa, bemendik urte batzuetara zer gerta litekean pentsatzen hasi da. Eta ikusi du ikusi lurraren aberastasunak agortaraziz, ura erabat zikinduz, airea mikrobioz beteaz, bizimodua ezina izanen dela. Zer egin?

Baina zer egin behar den edo zer egin litekeen erabaki aurretik (edo erabakitzeko), fenomeno horren kausetara joan behar da. Zergatia, ba, labur esanda, gaurko lantegiztatze--moduari ezartzen zaio. Eta honen azpian, kapitalismoa ikusten da.

Baina ez dago hemen ere gelditzerik. Edward Goldsmith ekologista inglesak dionez, lantegi nazionalizatuak ere berdin zikintzen bait du ingurua, kausa nagusia, hona zientzia eta teknika gizonaren gain daudela. Michel Serres jaunak dionez, horiek menderatzea da gizonaren oraingo lana.

Frantziako Akademiako Leprince--Ringuet jaunaren iritziz (zientifiko oso sonatua bera), zientismoaren indar totalitarioak ekarri du batipat baliogoen gaurko krisia. Honek ekarri du autoritatearen autzea, honek teknokraziaren nausitza, eta honek ezagutzen dugun guzizko" poluzio" hau.

Orain arte Leprince-Ringuet jaunak esandakoaz Lanza del Vasto eta gainontzeko izadi-zaleak pozik leudeke. Ez gero dionarekin ordea: zientifiko honek ez bait du zientzia ukatzen, ez gutiesten. Mundugintzan, dagokion lekua eman behar zaiola dio. Eta leku hori ez da, orain bezala, lehenengoa. Hori da dena.

Versailles-eko "Palais des Congrès" delakoan Urriaren 1ean egindako "mahain inguru" batetan Leprince--Ringuet jaunari hau dena eta askoz gehiago entzuteko zoria izan nuen.

Mahain-ingur uhori, izan ere, izan naizenetatik interesgarriena izan zen nere gustorako. Aipatutakoarekin batera, han zeuden Elgozy idazlea ere, eta gero Gruson ekonomista ezaguna, eta batipat Garaudy filosofoa.

Eztabaida, berehalaxe berotu zen. Hizlari bakoitzak bazuen asko esateko. Eta egia esan, gaia agortzea ez da batere erraza.

Guztion ahora zetorren lehen galdera hau zen: Bizitza eta mundua aldatu? Baina zergatik?

Elgozy jaunak erantzun erraz bat emanen du: bizi ezina delako. Aire garbia arnasteko, ur garbia edateko... Aneto puntura joan behar duzu. Eta zarata? Nork jasan, egun eta gau, automobilen eta abioien etengabeko zarata? Elgozy jaunak, hain zuzen, problema horietaz, liburu bat idatzia du: "Les damnés de l'opulence", alegia, ugaritasunaren kondenatuak. Honi, hiri handietako jendetza jarri, eta gainera teknologia ahalguztidunaren zientziazko tirania... eta agian Elgozyren ondorio beretara helduko zara.

Gruson jaunak ere aldatu beharra aldarrikatzen du, eta hori gaurko Hazkuntza eta Justizia elkargaitz direlako. Ekonomista protestante honen iritziz, gure garaiko karakteristikarik nagusiena hauxe da. Sustraian bertan dago usteldurik gure gizartegintza hau, giza- helbururik gabekoa da-ta.

Aldatu behar dela, eta zergatik aldatu behar den ere adierazi ondoren, beste hauzi bat dator mahain gainera: Nola?

Mundutik berezturik ala dena apurtu eta deuseztaturik? Hautapen posiblezko bezala biok utziaz, ez bata eta ez bestea hautatzen du Gruson-ek. Arrazoizko plangintza baten bidez gizarte-arazoa konpontzera heldu ditekeela uste du.

Baina bide bat ala bestea hartu, betiere esperantza beharko dela dio, eta gero eta gehiago gainera.

Hori da, hori da!, dio Garaudy-k. Esperantzaren baliogoa azpimarkatu behar dela azpimarkatzen du berak. Antsiaturik eta noraezean dagoen mundu batek, lehen lehenik esperantza du beharrezkoen. Esperantza, bai, azkeneraino, helbururaino garamazkian bultza-gailu hori. (Tresnagailuen erlijioa" besterik ez duen gizarteari, helburua, xedea proposatu behar zaio. Horrek bakarrik ematen bait dio zentzua bizitzari bezala munduari.

Elgozy-k, nahiz-eta horren beltz gizartea ikusi, kontzientzia hartzearekin eta kontzientzia aldatzearekin gizarteari erremedioa bilatu diola diruditi gero. Ezetz, dio Garaudy jaunak. Kontzientzien aldaketa, gizonaren aldakuntza behar beharrezkoa da zalantzarik gabe, baina estrukturen aldakuntza ere hori bezain preminazkoa da. Biak batera. Eta bide horrek izen bat du, Garaudy-ren pentsamentuan: autogestioa. Pentsamentuaren lau puntatatik Versailles--eko Ekintza Sozialaren mahain ingurura bildu ziren lau gizonok hau zuten batean: gaurko gizarteaz mesfidantza eta biharkoaz esperantza.

Joan Mari Torrealday

zeruko ARGIA

Zuzenadaria:

MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Donestian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo bataseunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu
Salmetan (ale bakoitza)	7 pezeta

(c) Ministerio de Cultura 2005

BERRIAK

● Urriarekin batera hasiak ditugu non-nahi euskara ikastaroak. Denetarikoak ditugu, haurrentzat, gazteentzat eta irakasle mailakoentzat, alegia.

Oraintsu argitara eman zaigun euskara ikasteko metodo batek —EUSALDUTZEN— dioenez, **Barakaldotik Tuderaraino** egundainoko mugimendua dugu gure Euskal Herri eta euskaldungoaren barrena. Bejon dagigula guztioi.

● **Izan ere, hilaren 9an. hasi ziren Zarautzen gau ikastaroak. Zenbait gai eman ahal izanen dira, nor bere aukeran, zainetan bat euskara izanen da. Honako ikastaro hauk Guraso Elkarteak eratuak dira.**

● Tolosan, berriz, "Oargi" taldeak eraturik, euskaraz tutik ez eta hamalau urte gorakoentzat. Ikastarook, urian hasi eta ekainerarte jaraituko dute.

● **Irunen ere bai, euskaraz dakitenenzat, ordea. Gauez izanen dira, alfabetzaze mailan, eta bertako Pasiotarrek eratuak. Ea ba, denaren beharretan ikusten dugu Bidasoa bazterreko herri handikotea eta.**

● Eta Bergaran. "Patronato Irigoyen" delakoak eraturik eta Euskaltzaindiaren beraren arduraren pean, hasiak dira hilaren 17an. alfabetatzen ikasaldiak. Astean bi egunetan —asteazken eta ostiraletan—, guztiz zortzi asteren barrena.

● **Bai eta Arrasaten ere. Danok"**

Elkarteak gau-ikastolak eratu ditu. Bi taldetan, 6-14 urteko umeentzat, eta 14 urte gorakoentzat. Gau-ikastola hauk euskaraz ezertxo ere ez dakitenentzat moldatuak dira.

● Eibarren, berriz, alderantziz. Irakasle mailan, Euskaltzaindiak irakasle esaminetarako eskatzen duen programari atxikiz, eta eibartarrentzat ezezik, bai eta inguruko bailara guztikoentzat ere. Serafin Basauri jaunaren zuzendaritzaren pean, Imanol Laspiur, Antton Narbaiza eta Jose Luis Arrieta dira maisuak.

● **Horrez gainera, Eibarren bertan, hasiak dira urtero bezala euskaraz ez dakitenentzat ikastaro aproposak. Bai eta euskaraz ondotxo dakitenentzat ere —irakasle mailakoaz gainera—.**

Imanol Laspiur maisuak talde aparta bat bildu ohi du bere inguruan; aspaldian alfabetatua den taldea, eta, behar bada, irakasle izateko asmotan ari ez dena, gero, ondorioz, erraz asko gerta daitekeena bada ere.

● Nafarroako berririk ere badugu. Lesakan, hain zuzen, "Beti Gazte" elkarteak eraturik, joan zen astelehenean —hilaren 23an.— hasteko ziren euskara ikastaroak. Hiru mailatan hasi ere, nor bere ezagupenaren arabera.

● **Eta Goizuetan ere ari dira zerbaitetan, Xabier Berroeta bertako berri emaileak adiarazten digunez. "Kili-kili" sistimaz ari omen dira, "Principe de Viana" delako antolamenduaren arduraren pean.**

● Eta beste hainbeste Parisen. Euskarazko kursoak prestatzeko asmotan ari dira Frantziako hiriburuko Euskal Etxean. Euskaraz ez dakitenentzat, eta hiru mailatan, nonbait.

● **Eta ikastolei buruz zer esan? Ez gara hemen hasiko den-denak banan aipatzen. Hala ere, diogun esate baterako, hamalau direla Nafa-Iruñen bertan, eta gainontzekoak horroan barrena dauden ikastolak. Bi nako herri hautan, hots: Aoitz, Olague, Lizarra, Etxarri-Aranatz, Burlada, Lakuntza, Lekunberri, Leitze, Elizondo, Altsasua, Tafalla eta Olazti.**

Aipagarria deritzagu Tafallako ikastolari, zeren denok dakigunez, euskara, "linguae navarroum" delakoa, aspaldi galdu zen Erribera aldean.

Duela hiru urte —1969 urtean— ekin zioten Tafallan ikastolari. Urte hartan bederatzi haur baino ez ziren azaldu. Hurren urtean, berriz, hogeita bi haina, eta hogeita hamar iaz. Uurten, ordea, berrogeita hamalau. Ezin uka ba, harrera ona izan duela Ikastolak tafallaren artean. Zorionak.

● Eta hego aldean ezezik, bai eta ipar aldean ere. Bataz beste hamabiren bat ikastola ireki dira aurten: Ziburu, Donibane Lohitzune, Azkain, Senpere, Baiona, Arragoitz, Uztaritz, Donibane Garazi, Donapaule eta Maule hirietan bana, Hendaian, berriz, bi haina.

● **Bestelako berriki ere badugu. Hilero-hilero ohi duenez, Iñaki Zubizarretak bidaltzen digu Donostiako Herri Irratiak eratzen duen EUSKAL KANTA delakoaren zerrenda. Irailekoa dugu honako hau:**

1.—NERE HERRIA, Lurdes Iriondo. 2.—HAURRAREN JAKINTZA, "Urretxindorrak". 3-0 GU HEMEN, "Ameslariak". 4.—GAZTE GUDARIA, Jose Mari eta Mikel. 5.—URRILLAREN 28-EGUNA, Xabier Lete. 6.—GURE BIDE GALDUAK, Benito Lertxundi. 7.—HAIKA MUTIL, Mikel Laboa. 8.—HURA, Antton Valverde. 9.—NAHI NUEN KANTATU, "Urretxindorrak". 10.—MAITEAZ GALDEZKA, Xabier Lete.

Irakurleak ikus dezakeenez, aspaldiko kantak ditugu iraileko zerrenda honetan. Orain ateratzan diren diskek ez dute, nonbait, haiek hainako indarrik edota harrera onik, Donostiako Herri Irratiko entzuleen artean behinik behin.

Lehen ere esana dugu halako zerbait, alegia, noiz arte edukiko ote gaituzte zain Lertxundi, Laboa, "Oskarbi" eta beste zenbait kantari iaiok? Bi urte bait dira ez dutela diska berririk ateratzen.

● Urtero bezala, Domusandu egunaren izanen dugu aurten ere Durangon EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA. Aurtengo hau, Gerediaga Elkarteak eskaintzen digun zazpigarrena da.

Hiru egunetan irekiko da azoka, hau da, azaroaren 1ean., 4ean. eta 5ean. Orduak, berriz, 10 ½ etatik. 2ak. arte goizetan, eta 5etatik. 9ak. arte arratsaldetan. Azoka, ohi denez, Santa Maria Uribarriko deritzan elizaren arkupetan izanen da.



Aurten Nazioarteko Liburu Urtea ospatzen delarik, giro eta arnasa berri bat erantsi nahi zaio lehendanik ere nahiko harrera ona izan ohi duen azoka famatu honi. Ospakizun hau dela eta, zenbait hitzaldi izanen da hilaren 2 eta 3an.

Horrez gainera, "Gerediaga Saria" delakoa antolatu da, urtearen barrena literatura eta ikerketaren aldetik euskaldungoaren onetan emaitza onuragarriena eskain dezakeen liburuari.

Beste ihardunen batzuk ere izanen omen dira, lerro hauk idazten garelarik zehatz mehatz ez dakigun arren. Bestalde, hogeita bi inguru editorial bilduko omen dira antzinako Tabiran, eta azken urteetan ohituak gaituztenez, beren liburu eta alerik berrienak eskainiko dizkigutelakoan gaude.

Urtero bezala ere, azokan bertan eta zabalik irauten duen artean, zenbait dantza eta kanta talde arituko da, arkupetan bilduko garenon atsegingarri.

Durangon elkar ikusi arte ba.

AIPAMENAK

● **Mahai gainean dugu irakurle baten gutuna. Hendaiarra dugu, antza, bertatik idazten digu behintzat. Hona hemen zer dioen:**

Amatiño lankideari, agur:

Ez nauzu ezagutzen, eta ez zaitut ezagutzen; eta, halere, elkarren berri badugu, eta elkar ezagutu eta areago egiten dugula iruditzen zait. Oso artikulu mamitsuak egiten dituzu: eta, sinestuta egon, zure artikulua irakurtzetik hasten da bat baino gehiago. Eutsi!

Zure berri-bilduma horretarako bat badut gaur. Donibanen hasia nauzu —igaz bezala— euskara erakasten; eta. Euskaltzaindiak prestatu duen Irakasle-Titulua xedetzat hartuz, azterketa horiei buruzko prestaera egiten dugu.

Eskolak astean bi aldiz ematen ditut, eta "Donibaneko Ikasleak" elkarteak moldatu du dena. Agian argitaragarri zaizu xehetasun hau, esan beharrik ez: euskara BATUA azaltzen dut; eta erabakiak HARTU ALA ematen dizkiet ikasleei, azkenekoaren beraren berri ere jakin dezaten.

BESARKADA BAT

Benetan bai aipagarria irakurle honen gutuna. Bi arrazoirengatik gainera. Alde batetatik, Donibanen ematen ari diren ikastaroen berri ematen digulako; bestetatik, Euskaltzaindiaren esanari guztiz atxikirik ari direlako.

Izan ere, batek baino gehiagok uste du, batasun arazoa Hego Euskal Herriko bitxikeriaren bat dela soil-soilik. Iparreko euskaldunei ez dagokiela halakorik, edota, ez diotela jaramonik egiten. Gu egundainoko ahaleginetan arituko bagine bezalaxe haiei gustoa egin nahirik, eta haiek, aldiz, ezertan amor eman gabe guri.

Bedi gure hendaiar honen gutuna, Euskara Idatziaren Batasunaz Ipar aldeko mugimenduaren erakusgarri.

● Berri nahigabea datorkigu Zestonatik, Jose Sagarzazu Etxeberria hil dela, alegia, berrogeita zazpi urte baino ez zituela. Goian bego.

Ez genduen ezagutzen Joxe, aspaldi honetan **Sagartzatzu'tar Joseba** izenez idazten zituen artikuluetatik izan ezik. Eta zoritxarrez, orainez gero ez dugu ahal izanen ezagutu.

Pertsonak elkar ezagutzea oso garrantzi handiko arazoa dateke. Are gehiago idazleek —kazetetan barrena idazten dugunok— elkar ezagutzea. Elkar ezagutuko bagendu, zenbat jokaera ulergaitz bihurtuko lizatekeen konprenigarri, zenbat ikusi-ezin arinduko, zenbat aihergo leunduko.

Izan ere, inoren lepotan jipoika eta marmaka hasi aurretik elkarri mintzatuko bagintzaizkio, nork bere iritziak azaldu eta, batez ere, besterenak entzun, zenbat alferriko ihardun, zenbat irain gutiago argitara emanen genduen geure irakurle sufrituen aurrean.

Baina... betiko baina... ez da praktikan posible edo... zer arraio esan dezaket? Kazetalaritzak dinamika bat behar du, gauzak berotan egin beharra eskatzen du sarritan, itxaron ezina.

Sagartzatzu'tar Josebaren heriotzak ausnarketa hautara eraman gaitu. Damurik, hiletak bakarrik garamazki zenbait burutapenetara. Gauzek konponketarik duten artean ez ote dugu inoiz elkar hobetoxeago ezagutuko? Aproba eginen ahal dugu?

● **Lasartetik, ordea, albiste alaiagorik dator, nahiz eta berandun, ohi denez. Lehen ere esana naiz, zenbat kostatuko ote litzaieteke edozein eginkizun edo antolamendutako arduradunei hamabost egun lehenago euskal aldizkariei beren asmoren berri ematea? Baina, alferrik, betiko leloa.**

Dena den, hasi orduko Lasarte aipatu dugunez, irakurleak badaki oraingoz "Zeleta"ri eskaini omenaldiaz ari naizela. Ezer guti esan dezaket nik "Zeleta"z irakurleak ez dakikeenik, hala ere badut nik hartaz halako begiramendu bakan bat. Izan ere, oso oker ez banago behintzat, "Zeleta" da ene oroitzapenetan nik neuk ezagutu nuen lehen euskal idazlea, "euskaltzalea" eta euskaltzaina. Ia, ia, "jainkotxo" bat alegia.

Sasoi hartan —duela hamarren bat urte—, Eibarko euskaratxoa baino ez nekien, Z. ARGIA ez nuen inolaz ere ulertzen (zenbait giputz herrizalek besterik uste bazuen ere), "Amatiño" jaiotzeke zegoen, noski, eta eskola utzi eta hasi berria nintzen lanean.

Eta lanean ezagutu nuen hain zuzen "Zeleta", lantegiko zenbait produkto eskaintzera etortzen bait zen. Geroztik, guti edo asko, sal-erosketako harreman haiekin jarraitu dugu, bai eta zenbait produktotako eskari-eskaintzak elkarri euskaraz zuzendu ere.

Agian huskeriak izan daitezke esandako xinplekeria hauk. Daitekeena, baina ez nuen nahi hala ere aukera utzi, "Zeleta" maiteari ene gogoeta zintzoena eskaini gabe. Zorionak.

● Eta hel diezaiogun lehen bait lehen beste arazoren bati, zeren honenbeste gogoetaz "biguntzen" hasia bait naiz.

Autopista arazoak egundainoko istilu eta iskanbila sortzen ari da Zarautzen. Aspalditxo konpondurik egon behar lukeen arazo hau, geldirik, nora ezean dugu, itxuraz behinik behin.

Izan ere —diogun—, legeari dagokionez erabakita dago hauzia, eta Europistas delakoak nahi duenean ekin diezaioke lanari Zarauzko lurretan. Baina, nahiz eta proiektoak adiarazten duen epeari dagokionez atzeraturik ibili, eta legearen aldetik hasteko oztoporik izan ez, ez dira oraindik hasi obretan. Nonbait bada zerbait.

Hauzia ez da atzo goizeko. Dakigunez, Europistas delakoaren lehen asmoz, autopistak Zarautz erdi erditik joan behar zuen, mendi faltsu baten gainean, "relleno" gisa, eta herria erdibanatzen, Gipuzkoan zehar inor herrik ez duen launea izorratuz eta Zarauzko herriaren hazteko eta zabaltzeko ahalmena behin betiko murriztuz.

Egia esan, Zarauzko herria nahiko damuturik dugu joan zen mendean eraiki zen trenbidearengatik, eta ez du nahi inolaz ere, etorkizunari begiratu gabe lehen egin zen astakeria berriz ere egitea.

Honetaz, Zarauzko Udalak, Donostiako Elosegi jaunak egindako istudio bat aurkeztu zuen, harako bide nagusi berria mendi hegalean egin zezatela proposatuz, herritik eta hondartzatik ahalik eta urrutien. Arazoak hauzitara jo zuen eta "Obras Publikas" izeneko Ministeritzak erdibide bat aukeratu zuen.

Europistasek onartu zuen harako erabakia, ez ordea Udalak, eta arrazoia nahiko ulerterraza dateke, zorioneko erdibide hori lehendabiziko bide BERBERA bait da, hamabost metroren gora beheran. Udala ez dator bat, jakina, Ministeritzak erabaki zuenarekin eta "Recurso de Reposición" delakoa zuzendu dio.

Baina bada besterik, lehengoak guti balira ere. Modu batez edo bestez, Orioko abiadan, autopistak tunelpe batez iragan behar zuen "Mollarri" izeneko mendiaren atzekaldetik. Orain, aldiz, tunela egin beharrean, mendia goitik behera ebakitzea pentsatu dute, 60 metrotako trintxera edo pasadizu batez. Eta dena, hilaren azkenean, Iberduerori tunelpeko argitan hiru txanpon ez ordaintzearen gatik. Lotsagarri!

Eta are lotsagarriago jakinik, Madrilen ezetza eman ziotela —beste zenbait arrazoiren artean— Udalaren proiektoari, 25 metrotako trintxera bat egin beharra zuelako mendi hegalean, eta **hain txintxera ikaragarriak jendea beldur araziko zuelako bertatik pasatzean.** Tokitan geratu dira orain 25 metrook!

Ez dakigu zertan amaituko den arazoa. Udalak ez du etsi, ez eta etsiko. Herria erne dago eta obrak geldirik. Ez genduke nahi besterik, gure susmo txarrak egia bihur ez daitezela baino. Bedi bai, Zarauzko herriaren onetan, eta ez Europistasen ixilpoltsarenetan.

LIBURUAK

● **Agindu bezala, Xabier Kintanak EUSKALDUNTZEN deritzan euskara ikasteko metodo berria bidali digu. Berria diogu, bai agertu berria delako, baina, bai eta metodo berri batez baliaturik egina delako ere.**

Honako metodo hau irakasle talde batek moldatu du —Badiola, Etxebarria, Goikoetxea, Intxaurraga, Kintana, Legarreta Munduate eta Zearreta irakasleek, alegia—, eta irudiak, berriz, J. Juaristirenak dira.

Nik neuk ikus ahal izan dudanez, guztiz harrera ezin hobea izan du metodo berri honek. Larrekoren omenaldiaz sail honetan egin nuen aipamena irakurri eta gero, hiru irakurleak eskatu dit harako metodoa, ez bait duke oraingoz liburutegitan salgai aurkitu.

Metodoari berari buruz ezer guti esan dezaket. Egia esan, azal azalez baino ez dut ikusi, eta, behar bada, zer ikusi guti du, esan gura dut, zera: teoriaz baino praktikaz beharko duela bere balioa frogatu.

Dena den, euskara soilean moldatua da, inolazko erdararen morroitzarik gabe, ikaslea hasiera hasieratik euskaraz behartzen duelarik. Azkenean berriz, hiztegi erraz eta oinarritu bat dakar.

Akatsen bat erantsi nahiez gero, bada bat nahiko nabari, galde-erantzunez egina den metodo batetan are nabariago gainera. Galderetako AL/AHAL delakoaz ari naiz, metodo honen barrena ez bait da inon agertzen.

Irakasle talde honek izanen du, noski, arrazoiren bat edo beste hutsune honetaz, ez bait dugu uste ahaztu egin zaion gauza denik, aitzitik, zenbait azterketaren ondorio izanen da segurutik. Hala ere, dena den, metodo honek erdararekiko zezakeen morroitza bakarra dateke.

EUSKALDUNTZEN. Euskara Batuaz. Irakasle talde batek. Editorial Cinsa. Bilbao, 1972.

AMATIÑO

(c) Ministerio de Cultura 2005

GURE TXOKOTIK

UNIBERSIDADEA

Kurso berria hasi ondoren badago kezkarik asko gure estudianteen artean. Izan ere oraindik gogoan daukate igazkoa eta ez dirudi gauzak nolanahi bere onera etorriko direnik. Aldaketaren batbuek ezarriak dituzte, irakasleen obeditu beharra, disziplinaren gogorra, estudianteen jendetza sakabanatuaren premia, eta abar. Baina naikoa izango ote da?

PSIKOLOAGOAK

Psikologiaren karrera duela hiru urte jarri zuten Unibersidade mailan. Baina planak egitearekin bakarrik ez dute asmatu. Izan ere asko dira tituloa eskuratu ondoren, ederki kostata eskuratu ere, lanik gabe aurkitzen direnak. Beren egitekoa hiru lan sailatan bete dezateke: Ikastetxetan, industrian eta baita gaisotegitan ere. Oraingoz, titulodunen artean %2 besterik ez dira enplegatutakoak.

AFRIKAKO BERRIAK

MARRUEKOS

— *Marruekos militarismoaren bidetatik dihoakigu. Berebiziko problemakin aurkitzen da afrikar estado hau. Nekazariak dituzu bertakoak gehienbat, baina lurrik emankorrenak talde txiki baten eskutan daude. Askoek kanporatzearen, emigratzearen jokabidea baino ez dute hautatzen. Bertako erregek eskapadarik egina du azken aldi honetan, eta militarrak bete betean ekin zioten. Oraingoz, ordea, militar indarren agintea bere gain hartu du erregek, eta ez dirudi gauzak gehiegi, oraingoz behintzat, aldatuko direnik?*

MALGACHE ERREPUBLIKA

— *Malgachen, Madagascar izenez ezagunago, frantsezen jokabideak bertakoak hasarre bizian jarri ditu. Dakigunez, frantsezek isla hau 1896 garrenean menperatu zuten. Geroztik ekonomia morrontza garratzean bizi zaigu Malgache Errepublika. Europarrek kontrolatzen dute ekonomia gehiena, %70 hain zuzen. Bertako kapital indartsuena ere europarren eskutan dago eta irabazien puska haundi bat %36 Europara itzularazten dute. Hizkuntza mailan ere zapaldurik daude, ofizialki bertakoa baztertua izen delako. Langile eta estudiantek euren haserrea erakutsi dute. Oraingoz indarkeriak isilerazi ditu.*

ANGILERIA INDARTZEN

— *Langileria, han hemenka, indartzen doa. Udan, abuztuaren hasieran, Cotonau kaieko langilek huelgari ekin zioten. Zenbait langile bahitua izan zen, baina berebiziko garaipena lortu zuten. Huelga hau dela eta, C.D.T. (Confedération Dahoméenne du Travail) sindikatoaren itzala ere haunditu da. Marruekosen transporte edo ekarreramanetakoek huelgari ekin ziote aurtengo udan. Mauritanian, berriz, sindikatoa gobernuan dagoen partido bakarrean integratu nahi bide dute. Langilek, euren burrukan ez dute etsitzen.*

PORTUGAL GERLAPEAN?

«The Observer» aldizkariak aditzera eman duenez, Rabaten gertaturiko isilpeko bileratan afrikarrek egiazko askatasunaren bila jokatzea erabakia omen du. Eta lehen ekin aldia portugaldar zapaltzaileen aurko gertuko omen dute. Azken aldi honetan, Guinea-Bissaun gerlan gogor dabiltza, eta gainontzeko afrikarrek euren laguntza eskainiko omen diote. Ondorenean Mozanbique izango litzake askatasun bidean jarri beharrekoa. Era honetan kolonialismo inperialista, nik bestelakorik ez dut ezagutzen, desegin nahi dute.

ESTADISTIKAK

Zenbaki eta estadistikek argitasunik asko eman dezaigukete zenbait arazo eta egoera ezagutzeko. Baina bestetan, gauzak osotasunez aztertzen direnean, egia erabat desegin dezateke.

Oraintsu, «Mundo Social» aldizkariak 202 garren alean, eskualdei buruz lan bat argitaratu da. Espaini estadu barruan eskualdeen arteko ezberdintasuna artertzen du, bizi moldetan eta irabazpidetan sumatzen den ezberdintasuna salatzen. Horretarako zenbaki batzuek aurkezten dizkigu eta bertan dakarrenez Gipuzkoa eta Bizkaia dira errenta mailan lehen puntan dabiltzanak. Eskualdeen arazoaz kanpo, gai hau erabiltzerakoan, zergatik ez ote dute gure deskapitalizatze eta abiadura kaskarra aintzakotzat hartzen?

MIKEL UGALDE

Baserriaren alde

EUSKAL ETA ERDAL



Caja de Ahorros

Municipal de San Sebastián

Banen baneko azikay
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega'ko Perira joan etorriak

Irabazi haundiegiak omen

Txiletik datorren itsasontzia bauzitan

Parisko hauzitegi haundiak, Ipar-Ameriketako Braden Kennecott Corporation elkargoak eskaturik, Txiletik 1.250 burnigorri toneladaz beterik datorren itsasontzi bat bahitzeko agindu du. Itsasontzia Txileko San Antonion betea zen eta joan den astean Le Havren zuten. Itsasontziak zekarren karga, frantses erosleentzat zen.

Braden Kennecott Corporation, Txileko burnigorria ateratzen zuen elkargorik haunditsuena zen. Burnigorri industri haundia, 1971eko uztailean, Txileko erresumak legez herritartu zuen. Eta geroztik, Santiagoko hauzitegi bereziak Ameriketako burnigorrizale elkargoak, azkeneko hamabost urte hauetan, "irabazi haundiegiak" atera dituela erabaki dute. Txiletarrek diotenez "irabazi haundiegi edo gehiegizko"hauek, legez herritartutako elkargoei eman dizaieketen ordain-saritik gutxitu edo kendu egin behar zaie.

Jakiña, tesis honetaz ez daude konforme ipar-ameriketar elkargoak eta, batez ere, Kennecott. Honek, lehengo irailean, "bere eskubideak gordetzeko behar zituen neurri guztiak hartuko zituela" esan zuen. Honela, Kennecotten eskabideaz, Parisko hauzitegi haundiak, lehengo hilaren 30ean, Txiletik burni gorriz beterik zetorren SS. Birthe-Oldendof itsasontzia "bahitzea" agindu zuen. Aginduak, 6.800.000,— FF'etaz edo 1.300.000,— dollarretaz jabetzen dela dio.

Txileko «Txukikamata»ko burni-gorria norena ote: Txiletarrena ala orain arte explotatu izan duten Iparamerikarrena?

"Neurriak ez du ez oinarri bidezkorik eta ez legezkorik" dio Eduardo Novoa jaunak erresuma-zaindaritza-batzarreko lehendakariak; berau izan da, lehengo urtean, bere osotasunez, lege-egokieraz eta ideia kementsuaz burnigorriaren legez herritartzearen egillerik biziena.

"Nahiz eta gure Herria hain zatituta egon politika aldetik, legez herritartzea Congresoaren batasun osoz erabakia izan da: herbesteko hauzitegi batek, nahiz eta itzal haundikoa izan, ezin dezake epaitu txiletar gobernu eta herriaren erabaki guziz gainekoa. Ziur gaude, frantses hauzitegiak ondorenik gabe utziko duela oraingoz neurri hau".

Pentsa daiteke ere, neurri hau ez zaiela batere atsegin izan herbestetar erosleei, batez ere, gauzik bahitzeko aginduak hemendik aurrera erabat eginak izan ditezkeelako. Kennecott alkargoak txiletar burnigorri erosleak ordaintzaz larderiatu zituan eta Santiagon elkartasun haundia sortu zen "chantage" honen aurka.

Txileko exportaziorik garrantzitsuena bere horretan iñora gabe geratzea gerta daitekeen gauza da. Braden Kennecott Corporation bera urteko 200.000 burnigorri toneladen ondoren dabil eta produzio honen balorea, gaurko preziotan, 220 milloidolar amerikano da. Eta Anacondak beraz, beste meatzetako burnigoria ateratzen duen elkargoak, Txileko erresumaren lehengo urteko legez-herritartzea aurkesteko, Kennecottek bezin bide gogorrak hartuko dituela esan du.

Honela ba, orain bi urte Salvador Allende jaunak boterea hartu zuenez geroztik, hau da ipar-ameriketar Estadu Batuaren lehenengo "eraso-aldirik" serioena Santiogoko gobernuaren aurka.

Santiagon "I.T.T.-ak agertu duon dokumentu isilak argi eta garbi utzi du zenbaterainoko "presioak" egin dizkien ameriketar agintariei Txilen kokatutako "multinazional" elkargo haundi batek. Dokumentu hauek irakurriz garbi ikus daiteke ameriketar haundizkiak I.T.T.-ak eskatutako neurriak oso gogoz onartu dituztela eta Txilen nahasketa ekonomikoa eta politikoa sortzera doaztela.

Washingtonen eskaeraz, nazioarteko finantzalari erakundeak emanda zeuzkaten kredito bideak moztuak izan dira: lehen 220 milloi dolar orain 25 milloi.

Jokabide hontaz askotan baliatu da 1968'garrengo urrian International Petroleum Conpanyren ondasunen jabetzearen ondoren Peruko Velasco Alvaradoren aurka, eta egun biziki laguntzen du jokabide honek Txileko "dibisen" erreserbak desegiten eta bere eragozpen ekonomikoak haunditzen; hau nabarmen azaldu da Txilek New Yorken zeukan urrea Frantziako Bankura aldatu duanean. Hau dugu "blocus" isillaren salatzailerik nabarmena.

Iparreko auzotar indartsuak, orain arte trebeki lortu du "jan-iturriak" moztea nazio-arteko begikotasuna mugitzeke. "Gerla ekonomiko" hau askoz isillagoa da, dudarik gabe, militarkeria baino. Hala eta guztiz ere uler daiteke pentsaera guztitako txiletarrak biziki oartzen direla beren nagusigoaren aurkako borroka hontaz.

Txileko burnigorria legez herritartuz geroztik, Washingtonek ez die laguntzarik ukatu han sartutako ameriketar elkargoei. Hala eta guztiz ezin uka daiteke, U.S.A.k ofizialki hartu duan postura ez dela beste elkargoak hartu duten bezalakoa. Nixon jaunak sarritan esan du U.S.A.k neurri zorrotzak hartuko dituela legez-herritartutako amerikketar elkargoak zuzenbidez ordaintzen ez dituten gobernuen aurka. "Herritartzeko eskubidea" bera Washingtonek ez du ukatzen. Gaiñera, herriek bere lurreko aberastasunez baliatzeko eskubide hau, Nazio Elkarteak onartu egin du, oso aipamen osoz, 1962 garrengo abenduaren 14eko 18.03 erabakiaz. Halabearrez oinarri hau jarri du zalantzan Kennekottek, herbestetar hauzitegietara jo duanean.

Lehengo irailean, elkargo honek egunkari askotan zabaldu zituen ainbat ohar; herbestetar erosleei zuzendu zizkien anitz eskutitz "El Teniente meatzeko kobreaz eskubide guztiak gordetzen zituala" gaztiatuaz.

Txiletarrek nazioarteko eskubide guztiak errespetatu jardunak direla diote. Eta gaiñera, eztabaida honetan sartzea ez da herbestetar hauzitegiei dagokiena; diotenez, Codelco (Txileko burnigorriaren bazkundea), izatez, erresumaren erakundea delako.

Kennecott, Morgan eta Rockefeller elkargoekin loturik dago eta nazio-arteko elkargo haundi anitzen jabetza dute. Eta galdera bat sortzen da: posible ote da kaiserkeriaz lege bidez liberatzea? Nahiz eta arriskugarria izan hau da txiletarren jatorrizko tesia.

Bainan, U.S.A.k egiaztatzen badu lehengo astean Kennecottek hasi duan guduxka, berak ere arrisku haundia hartzen du, alegia, hirugarren munduarentzat irten-bide bakarra indarra dela eta oinlegediaren barruan gelditurik "herriak beren aberastasunez baliatzeko eskubidea" ez dala Nazio Elkartuaren deseo polit bat besterik.

Parisko hauzitegi haundiaren erabakia alde batera utzirik, nazio askotan kokatutako elkargoen eta jabetasun osozko erresumen arteko errelazioen prolema ezartzen du gertaera honek zatarki begien aurrean.

Salvador Allende jaunak Nazio Elkartuen biltzar nagusian hitza hartzea pentsatu badu ez da oharkabez izan, munduko iritzia esnatzeko baizik.

LUKA

MITXELENA

BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA

Euskaldunak eskatu salneurriak (deskuentoa)

Avda. de Francia, 1

— IRUN —

(c) Ministerio de Cultura 2005

MUSEOA EGUNGO MUNDUAN

1.—JUAN SAN MARTINI ERANTZUNAZ

Duela zenbait aste, La Hoja del Lunes aldizkariaren euskal sailean, Euskaltzaindiaren idazkari den Juan San Martinek zenbait gogoeta agertu zuen Euskal Museoez, arte-ontasunen kontserbatze eta katalogatzeari buruz. Lagun batzuk mintzatu zaizkit artikulu horretaz eta bazter anitzetan entzun ditut lan horren aldeko komentarioak; bainan ez Aldundegiko Bibliotekan ez beste inon ezin ukan dut eskura delako idazlan hori, une hontan Gipuzkoatik urrun bai naiz. Hala ere, ene lagunek bultzaturik eta holakoetaz interesatua naizelako, zertxobait esatera noa gai horretaz, artikuluaren textoa ez ezagutzeak mugaturik banaduka ere.

Laket zaigu, inolaz ere, luma nagusiek gure kultur-egoera samingarria salatzea. Idatzi izan dut, behin baino gehiagotan, Zeruko Argia hontan, gure gauzen ordenatzearen, azterkatzearen eta erabiltzearen premiaz, bainan ohi den bezala, haize boladaren batek edo borondate txarren batek eraman zituen hitzak. Eta bitartean, gure artistiko egoera geroz eta urriago eta idorrago, hala nola basamortua.

Esan zidatenez, eibartar idazleak Gipuzkoako erlijioso arte ontasunen katalogatzea eskatzen omen du eta orobat, Arabako probintzian egiten ari den antzera, sor ditezela museo ttiki batzuk. Esan beharrean naiz, aurtengo udan dudala hasia neuk katalogatze lan hori Donostiako Obispaduaren mandatuz eta Irun-Errenteria eskualdean material bilketa osatua dela gehienbat, nahiz eta gai hortan iaioak diren jakintsuen azterketa behar bada ere, zenbait dato ateratze arren. Katalogo-zerrenda sotil bat duzu hori, zenbait historiko datoz osaturik, elizen egitura, erretaula, imajina, liturgia-tresnak bilduz. Luzea duzu eta zaila lan hori, bainan lan hori (Juan San Martinek eskatzen zuen bezala) hasia da eta Eustakio Mokoroak esan zidanez: "Hasiak egina dirudi. Eginak urre gorri".

Gainera, artistiko ontasunen katalogo edo zerrendak, zientifiko dadin, zenbait estudio eta monografia behar luke oinarri, bainan halakorik asko ez dugu gure artean. Aipa dezadan hemen M.ª Asunción Arrazolakk Renazimenduari buruz egin obra nagusia, bai eta Manuel Lekuona, Sebastian Insausti, Luis Murugarren eta Migel Sagues-en monografiak ere. Gure historiografika-artistiko funtsa haspapenetan dugu oraino, lan handia dago oraindik, amai eta akitu ezinezkoa esango nuke. Lantegia handia da eta anitz pertsonaren arreta eskatzen duena, bainan zoritxarrez egun ez dugu horrelakorik aski.

Ontasunen kontserbatzeaz eta museoaz baditu bere asmoak Elizbarrutiak eta hoitan dihardu Jose Maria Zunzunegi ene lankideak, hau baitugu Arte Sakratuaren arduradun; eginak ditu honek ermita eta eliza eraberritze ederrak (horra Bergarako parrokia eta Larraitzko ermita). Dena dela, horrelako gauzak geldi joan ohi dira, dirua behar da, bai eta personal espezializatua ere (eta hau ez da sortzen gauetik goizera), amorioa eta gure gauzentzako arreta eskatzen dute (eta honelakorik aski ere ez dugu). Badu zenbait asmo elizbarrutiak eta emanen du hauen berri bere garaian. Hasi direla da jakingarriena.

Bestalde, gure desertu honen erdian, jakin arazi nahi nuke badela, museo koskor baina interesgarria Ondarrabiako Parrokian, bertako sekular batzuri esker bildua, eta izatekotan omen da Arraten (Eibarren eta Pasai Donibanen ere. Hona, ba, arte sakratuaren alorrean egiten ari dena, bainan honek denen lana eta laguntza du eskatzen.

Gipuzkoan, arte arazoetan (museo, bilaketa-zentro eta ab.) lana nahiko kaskarra dugu. Alderdi hontan, arras guti laguntzen zaio euskal kulturari, Museo, artista eta erakus-tokiei laguntzen zaiena urri eta farregarri da. Kulturaz atzeratua den herri batetan bizi gara (ez da halakorik gertatzen otordu kontutan). Hau baiesteko, Europan barna ibilalditxo bat egitea aski da: Belgique eta Holandan adibidez. Aurtengo udan ikus ahal ukan dut, ikusiak ditut hango museoak, parkeak, instituzioak, lorategiak eta ikusi ahal ukan dut artea ez dela burgesiaren bitxikeria edo universitar taldeko baten privilegioa, herriko eta kaleko jendeak berea duela baizik, bere begien bistan duela, nolakoa izan den eta nolakoa den aditzera emanaz. Hontara heldu beharko genduke guk ere, guk ere bai baitugu kondaira eta tradizio aski. Hontara heldu behar dugu guk ere, udan atzerriko estudianteak aztertzera etorriko diren herri fosilizatua bilakatu nahi ez badugu. (Ikasbide ederra ematen digute!).

Bainan zertako aztertu gure gauzak edo ikastegietan izkutatu? Ez ote hobe arte-lanak sortu ziren tokian egon ditezen, hortarako sortu baitziren, sortu ere? Hona, ba, erantzun eta erabaki zorrotzak eskatzen dizkiguten galderak, baldin eta gure kultura bideetan betirako atzera egin nahi ez badugu.

2.—MUSEOAREN BETEBEHARRA EGUNGO MUNDUAN

Duela zenbait urte, Sevillako museoaren zuzendari den Victor Perez Escolano jaunak museo eta honen betebeharri buruz zenbait deklarazio egin zuen eta guretzat gure egoerarako interesgarri deritzat. Horregatik, laburtuz ematen saiatuko naiz, berez luze eta sakon baitira.

Egun, jakinduariaren alderdi bakoitzak, espezialidade bakoitzak museo bat sortu ohi du. Lehen uste zenez, museoa gauzak biltzeko eta erakusteko bakarrik ohi zen. Egun, museoa komunikazio eta irakasketa bide bat da, bilaketa bide bat, universitateetan eta karrikan ere, errotua. Gaurko egunez, ez daiteke museoa gutti batzuentzat bakarrik izan, izan ere, zenbatek bisitatzen du egun museo bat? zenbatek aztertzen eta maiz ikusten?

Oraingo gizona ez da baliatzen lehengo jokaeraz; bere bereak behar ditu eta museoa izan daiteke bilaketa-zentro, jokaera-bide berriak sortzeko toki. Hortarako, museoekiko desentralizazio bat guziz beharrezko litzateke. Madridek zabaldu egin beharko lieke beste tokietako museoei laguntza, sortzen ari diren museoak aberastu, eta eskualde bakoitzeko kultura gerizatu. Museoak erakunde eraginkorra izan beharko luke eta gizartearen politikan errotua, eskualde bakoitzean erakusketak eratuz, univertsitarioentzat bezala langileentzat, haurrentzat bezala baztertuentzat. Egungo Museologia batetara jo beharra dago, haren tradizioaz ahaztu gabe noski, egungo gizonak bere inguruan duena jaso dezan, eta orobat jasotzeko eta analizatzeko ahalmena areago dakion eta horrela, jakituriaz jantzi ezezik, elkarrekin bizitzeko toki polit eta zuzen bat sortzeko gai izan dadin. Hortarako gehitu egin bear lirateke museo eta herritar soilaren arteko harremanak: konferentziak, konziertoak, modeloen desfileak, ikasteko tokiak eta bibliotekak, jolastokiak... Artistik heziketa handiago eta hobe batetara jo behar litzateke ikastolatik bertatik, eta era hortara, museoa luzamendu bat, haurrarentzat ikastoki eta jolastoki izango litzateke: sala bereziak hoientzat, parkeak... Haatik, nik esango nuke haurrak direla, hain zuzen ere, heziketa-beharrik ttikia dutenak, kontu hontan noski, zeren norbera-eta-gauza arteko harremana ez baitute biziatua hala nola larriek, nagusiek. Gorputzez nahiz psykiaz elbarrituak direnek naturalezaren aberastun hauek beren erara bizitzeko aukera behar lukete. Baztertuek, ghetotakoek eta ere, era berean, behar lukete ukan bidea irekirik, horrelako museotara.

Museo, artista eta erakus-tokiei laguntzen zaiena urri eta farregarri da



Argazkiak, Amsterdam-go Stedely museokoak dira

Beraz, kontua ez da jendetza bat kulturalizatzea, baizik arte-lan baten aitzinean libre eta erantzukizudun egitea, horrela nork berak atera ditzan bere ondorioak eta joera-arauak. Eredu zaharrak haustea bezain haurkeria eta dogmatikoa izanen litzateke beste berri batzuk ezartzea.

Asko mintzatu izan da museoen balioaz, arte-lanak beren sorlekuan ala museoetan egon beharko luketenez... Bainan denborak, kontserbatzeko kondizio txarrek (giro txarra dela, dirurik eza dela, ebasketa edo lapurretak direla, diru-interes partikularrak direla) kondairaz edo estetikaz balioa duten gauzen pilatzera bultzatzen dute, horrela seguruago, kontserbazioa eta ikusketa hobetzen delarik eta orobat azterketa eta konfrontazioa ere.

Asko egin daiteke eta egin behar litzateke Gipuzkoako eta Euskal Herri osoko museoetan, Juan San Martinek dion bezala. Gipuzkoan kexu gara kultura eta museoa arras utziak daudela eta, bainan Bilbaon Peninsulako museorik hoberenetakoa dugularik, inor guti joan ohi da bisitatzera. Soluzioa erraza denik ezin esan, bainan denok saiatuz egin genezake zerbait, gure hurrengoek harako hura esan beharrik ez dezaten: "Herri bat izan zan...".

TRANSPORTES azkar
ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.
Donosti'tik egunero:
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almeria, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.
Astean iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra
Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 450313 eta 459723
Aptdo. 1381

EUSKALDUN EMAKUMEA

Erreran, etxe bateko zereginak egiteko emakume euskaldun bat naiko litzake. Argitasun edo informaziorik nai duenak, Zeruko Argiara deitu beza. Urrut. 426666.

YOGUR GURELESA GOGOZKOENA

ERLOJU ETA BITXITEGIA
Eduardo Chopeitia
Getaria, 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

(c) Ministerio de Cultura 2005

Oiartzungo INTXIXU teatro taldea

Euskal Herikro teatro taldeen egoera aspaldian ilun xamarra da. Lanerako gogoa bada, baina erraztasun gutxi alde guztietatik. Batetik, texto berri interesgarriak falta dira; bestetik, ohitura eta formaziorik ere ez da. Eta, kaltegarriena, teatro obra bat martxan jarri eta agertzeaneginkizuna mila oztopok zailagotzen du: lokalen eskasia eta garestitasunak, baimenen gorabeherak, etabar.

Hala ere, zenbait talde lanean ari da, eta nahi nabarmena dago bide berriak urratuz zerbait positibotara heltzeko. Talde horiek gu guztien laguntza eta babesa behar dute. Pentsatu behar da gauetik goizera punta-puntako "marabillarik" ezin dela egin, eta alde hortatiko eta bestetatiko demagogiak bazterrera utzi behar direla. Lanean ari denak laguntza merezi du, eta laguntza horrek mila itxura ditu.

Gaur, laburki, euskal teatrotalde horietako bat aipatu nahi nuke. Eugenio Orozena lagunak zuzentzen duen Oiartzungo INTXIXU taldeak azken bolara hontan oso lan interesgarri bat prestatu du. Obra horren izena "ARALAR" da, eta texto bat oinarritzat harturik, Oiartzungo talde horrek oso montaje egokia eta bide-urratzailea lortu du. Talde horrek lehenago ere eskeinia zigun "LARTAUN-EN HISTORIA" deitzen zen beste obra bat. Baina oraingo hontan nere ustez askotaz ere aurrerago joan dira, eta gauza borobilago bat lortu dute. Euskal espresio zahar batzuk gaurko ideia eta xedeen funtziora jarriz, obra berri bati halako osotasun aberatsa eman diota.

Teatro lan horren nundik-norakoak ezagutzeko, berek esku-programaten idatzitakoa dakart honera. Haien adierazpenak honela dio:

"Goñitar Teodosio zaldunaren historia edo kontakaria oso ezaguna da Euskal Herrian eta oso hedatua dago bertako kantoi guztietara.

Erdi Aroko ipui horrek zer ikusterik badu garai hartako bizitzarekin. Hala ere, Intxixu taldeak beste zentzu bateman nahi izan dio. Teatro epiko modernoak sarritan egin ohi duen bezala, aintzinako gartakari edo kontakari bat hartu nahi izan dugu hura gaurko gure kezka batzuen moldetara jartzeko.

Beraz, guk Goñiren historiari ematen diogun itxura eta hartaz baliaturik egiten ditugun azterkerak oso gureak dira eta horrela izan behar dute. Alde batetik aintzinako gertakari posible batzuen inguru historikoa pixka bat argituz, bestetik gertakari horiek berritxuratu egin ditugu, eta hori egitearekin geure usteak eta gaurko problema batzuk agertu eta ikuitu nahi izan ditugu.

Lan hau, lehen eman genduen "Lartaunen historia" bezala, gure teatrogintza osatzen eta hobeagotzen joateko asmoarekin ematen dugu. Hortarako bide berri bati jarraitu nahi genioke. Goñitar Teodosioren obra hontan, pastural, muxiko, maxkarada eta beste zonbait espresio zaharretako erak eta moldeak hartu ditugu; uste baitugu horrela gure teatrogintzari oinarri sendoak jartzearekin batera, gaurko teatrorako beharrezkoak ditugun aterabide tekniko eta adierazpen mota interesgarriak era zahar horietatik sor genezazkeala".

Horra hor, oso garbi adierazirik, Oiartzungo taldearen asmo eta xedeak. Guk suerte on bat opa diegu, eta jendeari deia egiten diogu obra hori ikustera bil dedin.



Zenbait tokitan jarria dute orain arte (Goizuetan, Oiartzuen, Aginagan, Donostiako Trinitate enparantzan), baina denbora aldetik, etabar, ez dute orain arte beti suerte onik eduki. Donostian, adibidez, euskal jaietan, izugarrizko eurite baten pean jardun behar izan duten.

Horregatik, publikoari hemendik deia egiten diogu, INTXIXU taldea ikustera joateko aukera berriak izango dituztela esanaz. Adibidez, datorren hazaroaren (saindu guztien egunean), arratsaldeko seietan, Urnietako "Eliz-Ondo" aretoan beren lana agertuko dute. Geroago Azpeitiara eta beste zenbait tokitara joateko asmoa ere badute. Beraz, teatrorako afizioa dadukanak horiek ikusteko aukera izango du.

Ea jendeak, behar den berotasunaz erantzuten duen, Oiartzungo INTXIXU taldeak merezi baitu.

XABIER LETE

Liburuen Urratsetan

Inkopetenteen mundua eta gizarte-matematika

Sarritan gertatzen da lagunen batek, atsegin izan zaion liburu bat oso egokia litzaidakeela eta aholkatzea. Bestetan, etxekoren bat liburu batekin arreta osoz dagoela eta, halako jakin-min bereizi bat sortzen zaizu. Biak gertatu zaizkit «El principio de Peter» delako liburuaz. Halare, autosufizientzi gaizto bategatik edo, ez nuen interes haundiegiz ireki liburua. Beta pixka bat nuen batean, etxera nekatuta iritsi eta gauza arinak irakurri nahi dituzun batean, hartu nuen liburua. Badira liburuen azalak, edo izenburuak, edo liburua argitaratu duen editoriala edo... usain amerikar arriskutsu bat, liburu jakin bat irakurtzeko gogorik ematen ez dutenak. Eta hori gertatu zitzaidan Peter eta Hull-en liburua Zabaltzeaz hutsaz. Bainan, geroago, azala eta izenburua eta editoriala eta usaina ahaztu nituen: Eserialdi batean amaitu nuen delako liburua.

Oso xinplea da liburua eta xinpletasun horrek eraginda edo, badu «gauza» seria ez dela iruditzeko arriskua. Bainan ezin dugu, inolaz ere, zenbait amerikar liburu klasikorekin konparatu. Aztertzea zailla zaidan «Cómo triunfar» eta «Cómo lograr ser feliz» liburuen usaina badu, bainan ez du inundik hoien eta hoien antzeko liburuen arrastorik.

Lan egin, lostatu, maitatu, bizi eta etengabeko inkopetentzi mailan hil direnek egin dute posible Xerarkiolojia jakintza berria. Beroiei eskeinia duzu liburua. Funtsean, gure gaurko gizarteari eskeinia.

Eta Peter-en teoria, mila frogaren bidez oinarritua, hontan datza: «Jerarkia batean, edozein langile bere inkopetentzi mailaruntz doa». Bere lanean oso konpetente den langile bati, edo politiko bati, edo jerente bati, goragoko mailako lan bat eskeintzen bazaio, iristen da une bat inkopetente bihurtzen dena. Fabrika batean, eskolan, politikan, lan liberaletan. Edonun gertatzen da holakorik.

Peter-ek dion hau —eta oso elementala dirudi— onartzen badugu, afirmatze gogor batetara iristen gara: Gure gizartea inkopetente batzuek «zuzentzen» dute. Edo okertzen, gaztelaniazko «dirigir» aditza euskeraz «zuzendu» erabiltzen badugu, «dirijitzen» duen guztiak zuzendu egiten duela pentsa bai genezake. Eta makina bat gauza badoa oker gure munduan holakorik sinesteko. Gureari jarraituz, zenbat eta gorago igo jerarkia baten mailetan, gero eta inkopetente gehiago aurkituko dugu. Bainan gizartearen gurpilak mugitzen dituena, jerarkiaren maial txikienean dago: langilea da. Beraz, jerarkiaren goiko mailei dagokie gizartearen «okertzea» eta beheko mailei «zuzentzea». Peter-en hitzetan, «lana, oraindik inkopetentzi mailara iritsi ez diren langileek betetzen dute».

Humorez egindako gure gizartearen kritika gogor honek, ez du ezer zutik uzten. Matematika lojikoaren metodoaz zoaz liburuak agertzen dizun bidetik eta printzipio bakoitza beste printzipio eta korolario ugariagoen oinarri da.

Era guztietako lanetan aztertu dute egileek bere printzipioa, baina alderdi politikoena ezin hobea da... Ipar-Amerikako auteskundeen gezurra eta herri oso baten helbururik gabeko burruka bat salatzeko. Peter eta Hull-ek diotenez, auteskundeeatko kandidatoa ez da beraz geroko politikagintzan dituen posibilitateengatik aukeratzen, auteskundeak irabazteko dituenagatik baizik. Orduan, norbaitek auteskundeak irabazten dituenean, laguntzaile batzuk inguratu beharrean aurkitzen da. Eta, funtsean, honelako herri «demokrata» bateko politika ez luke auteskundeen irabazleak eramanen, irabazleak osatu duen laguntzaile eta aholkularien ekipoak baizik. Hor ditugu hain ezagunak zaizkigun Nixon-en laguntzaileak: Kissinger, Harrison eta abar. Nori legokioke, beraz, U.S.A.-ko buruzagitza? Buruzagitzarako konpetente denari, noski. Zenbat honelako pentsa-bide xinple bainan interesgarri liburuan!

Nerekiko, liburuak zuen interes guztia, azkenean galtzen du. Sistema baten kritikatzaile gogorrak, sistimako ikusten dituzu eta, betikoa, sistema baten —kapitalismoa, kasu honetan— gauza ustelak salatzen direnean, ez ahal da sistema hura gehiago sendotzeko?

Eta, sarritan gertatzen denez, gaur azaltzen dugun liburu honek sistema baten jerarkiolojia salatzen du. Bainan ez sistema.

Amaitzeko, inkopetente-konpleju batean murgildu nauela liburuak, aitortu beharrean nago.

ANGEL LERTXUNDI

Claravoz andereñoa irakasle oso egokia izan zen. Inspektore izendatu eta inkopetente bihurtu zen arte.
(Liburuko marrazki bat)

«Idazle eta periodista bezala, aukera zoragarriak izan ditut gizarte zibilizatua aztertzeko. Aztertu ditut politika, eta industria eta dirutza-mundua, eta heriketa, eta artearen gorabeherak, eta gai hoitaz idatzi ere bai. Hitzegin dut —entzun diet lanbide askotako gizonekin, gizarte— maila guztietako pertsonekin.

Konturatu naiz gizonek oso baldar egiten dituztela beren lanak. Alderdi guztitan ikusten dut inkopetentzia: Gure mundua inkopetentziaren eremu da.»

Raymond Hull-en hitzaurretik.

ZINE

Pasaiako zenbait gazteren asmoaren inguruan

«Zinegile batek, bere giro eta zirkunstanzi ororen lekuko izan behar du, eta hari buruzko eztabaidarako bide batzuen urratzaile. Zerbait adierazi bai, bainan aldi berean neuri ta besteei laguntzat bihur daitekeen zerbait, bizitze konkretoaren inguruak konprenierazteaarren».

Rosi direktore italiarraren hitzok (Salvatore Giuliano; Leihaketa; Ezin ahazturiko adiskidetasuna; Eskua hiriaren gain; Matei afera) zineaz dugun konzeptoa aztertzera garamatzate, eta ez espektakulo gisan hartzera, kezken espresiobide baino.

Zinea arte da, eta beraz, kultura ezagun batez baldintzatua, halaber politika eta ideologia batez. Inearen, hala nola kulturaren aurre jarrera bat erabakitzerakoan geure jarrera ideologiko-politikoa erakusten dugu.

Direktore baten lana edo eta zinema nazional berezi bat azterzean, argi eta garbi dakusagu ezin gaitezkeela kondizionamenduetatik at ibil. Ezin esan dezakegu filma hau hango edo hemengo baten lanaren adaptazioa dela soilik. Filmaren sakonetik zehar murgildu beharko dugu, zentzu kritiko batez jantzi gaitezen.

Zinea krisi larrian dagoela, obra-errealitate dialektika ahazturik dagoela, gaurko zinea —zinea deitzea baldin eta merezi badu— besteratzaile (alienatzaile) dela, inork uka ezin ditzazkeen egiak dira.

Gaur egun ez dago euskal zinemarik —baten batek esanen luke badagoela zinema euskaldunik (ezen ez euskal zinemarik), hots, euskaldunek (¿!) eginiko zinema... erdalduna!—. Bainan zinema hori ez dago gure arazoetaz arduratua, eta guk leporaino zikindutako filmak behar-nadi ditugu.

Zai egon gara luzaz. Gurea izanen dena geurok lortu behar dugu. Eta garaia da! Euskara hedatzen Pasai Antzioko premia larrienetako bat bezela joaz, eta zinea benetako bat bezalajoa joaz, eta zinea benetako egoera baten aurkezle eta habiei dagozkien elkar hizketak. Hasieran gaudelarik ere, badakigu hau ez dela gauza handia, bainan hemen euskarak duen bizitze kaskara ikusiaz, garrantzi handikoa delakoan gaude. Beraz, dei bat egiten diegu hontan arduraturik dauden pasaitar guztiei.

Fruitu lasotzerik izanen ahal dugu!

XAVIER P. - KOLDO I.

(c) Ministerio de Cultura 2005



USURBIL



OIARTZUN



DONIBANE

usurbil

HERRIKO JAIEN BUKAERA

Herriko jaiak bukatu dira. San Juanetan hasten diran Usurbilgo jaiak, joan dan astean, pena haundiarekin baino, bukatu zaizkigu. Jai asko ospatzen dira Usurbilen. Gogoratu besterik ez daukagu: Ekainean: San Joan jaiak, Kale-Xaharrean. Uztailean: Santaisabelak, herrian bertan eta Santiago jaiak, Zubietan. Sanestebanak eta Sanrokeak, abuztuan. Eta azkenik, Agiñako Sanpraisko jaiak.

Guri, aurten, haurren eguna eta gaueko dantza gustatu zaizkigu gehiena. Hortaz aparte, gero eta motelago dijoaztela jaiak iruditzen zaigu.

Datorren urterako ondo etorriko liraken honoko gauza hauek: lehenengoz: Jaiak egunero izatea eta ez lehengo urteetan bezala: asteartea edo asteazkena edo beste edozein egun, festa gabe utziaz.

Bigarrenez: Gaueko dantza ere egunero izatea.

Hirugarrenez: Haste barruko egunetan ikuskizun berezi batzuk antolatzea.

Era hontan, ez litzake lehengo urteetan bezala, egunean baino egunean jende gutxiago herri aldera agertzea gertatuko. Badakigu ez dala erreza jaiak ondo antolatzea. Baina gazte guztiok alkartu ezkero eta Herriko Etxerik laguntza pixkabat izan ezkero, jai ederrak presta ditezke.

"ARALAR" ANTZERKIA

Hil honen 8an Oiartzungo "Intxitu" taldeak, Agiñako Eliza Zaharrean antzeztu ziguten antzerkia dugu. Antzokia, estu xamarra era hontako antzerki baterako. Jende dexente. Festa giroa eta isiltasun falta ere bai jendearen artean, une batzuetan.

Antzerki atsegina gertatu zitzaigun "Aralar" pastural hau. Bi arrazoiengatik atsegin gaiñera: Batetik, "Aralar", euskal idazle batek edo batzuek sortu duten antzerkia dalako, eta bestetik, euskal antzerki zaharrean oikarrituz, gaurko gizarte giroa azaltzen duelako. Egokia, gure ustez, "Intxitu"koek hartu duten bidea.

Ondo eginak daude antzerkiaren hitz eta pasadizuak. Kantak, sakonak eta indarh aundikoak. Pikardi eta grazi haundiko ateraldi asko. Herri-esaera zaharrak ere ondo aukeratuak. Zenbait bertso, berriz, motel xamarrak, iruditu zitzaizkigun.

Antzezlariek jator bete zuten beren egitekoa. Argiak eta soiñeko jazkerak hain ongi tajuutuak edukitzeak, asko laguntzen die antzezlariei. Berdin soiñuak, koruak eta dantzak ere.

PERRETXIKUAK

"Garbi Alai" taldeko perretxiku zaleak, Tolosako eta Galdakanoko perretxiku sariketetan izanak ditugu. Tolosan 283 perretxiku mota ezberdin agertu zituzten. 90 mota onak eta 30 mota txarrak. Beste perretxiku mota batzuek berriz ez onak eta ez txarrak ez diranak. Galdakanon, berriz, 264 perretxiku mota erakutsi zituzten: 78 mota onak eta 30 txarrak.

Tolosan, 28 taldeetatik, hamaikagarren gelditu ziran, 846 punto rekin. Galdakanon berriz 8 garren gelditu dira 1075 puntorekin. Gaiñera sari berezi bat irabazi dute: Euskal Herriko on itxurako perretxiku txarrak egokiena agertu zituz telako.

Tolosan kopa bat eta euskal liburu sorta bat eman sari bezala. Diploma eta kopa Galdakanon. Egin duten lan hontan, Usurbilgo perretxiku biltzaile askoren laguntza izan dutela, aitortu digute.

"USURBIL" ESKUBALOI TALDEA BILBAON

Bilbaon, Espaiñako eskubaloi talde gazteen txapelketa ospatua da. Usurbilgo taldea Gipuzkoako txapeldun bezala joan da.

Bizkaitik "Maristak" eta "La Sa-ªe-La Casera" taldeak hartu zuten parte. "Beti-Onak" Nafarroatik. Logroñoko "Maristak" eta "Arrate" eta "Usurbil" Gipuzkoatik.

Suerte txarra izan dute Usurbilda gazteak. Bostgarren gelditu dira. Iruineko "Beti-Onak" txapeldun. Gaiñera, partidu denboran euskeraz mintzatzeagalerazi egin zien usurbildarreri arbitroak... Eta arbitroak, bizkaitarrak... Negargarria benetan gertatutakoa.

"ANDATZA"

ixurtza

IXURTZAKO EZPATADANTZARI EGUNA

«Gerediaga» *Elkarteak eta Ixurtzako Jai-Batzordeko-Gazteen laguntasunagaz antolatu zan VI Ezpatadantzari Eguna, erri ontan.*

Jende asko batu zan erriko pelota-tokian. Talde onek artu zuten parte: Berrizko «Iremiñe»; *Iurretako* «Mikel Deuna»; *Izurtzako* «Mendigain»; *Abadiñoko* «San Trokaz»; *Arrazolako* «Erlaunpe»; *Durangoko* «Tronperri», *eta Zaldibarko* «Koral» *ak.*

Saio bereziak eskeñi zituen bakoitzak.

Ondoren 70 urtetik gorako dantzari izandakoei omenaldia. Onek bai egin zutela aurresku eta atzezku benetan pozik!

Arratsaldean berriz «soka-dantza» *txapelketa. Leenengo saria, Iurretako* «Mikel Deuna» *ren taldearentzako izan zan; bigarrena Durangoko «Tronperri-koentzako eta irugarrena Abadiñokoentzako. Au bai izan zala benetan Euskal-Jaia!*

GARBIÑE A.E.

oiartzun

KALEZAI

Gure errian ere beste erritan bezelaxe, zalgurdi edo «kotxeak» asko ugaltzen ari dira. Baiñan ori ez da okerrena, edozein tokitan uzten dira eta or armatzen dira izugarrizko naasketak. Erriko etxeko agintariek erabaki eder bat artu dute eta Kalezai bat jarri dute. Orain jendeak, zigorraren bildurrez besterik ez baldin bada ere, saiatuko dira beren zalgurdiak ortako antolatuta arkitzen dan «parking'en» tokian uzten.

EIZA

Oiartzungo mendiak asko estimatzen dituzte eiztariek. Eta igandetan eta baita aste egunetan ere izugarrizko eiztari mordoxka ederrak ikusten ditugu. Baiñan aurten ere «eizak» bere tributua kobratu du. Mutil koxkor bat 13 urtekoa, eskopetarekin deskuidatu eta bere burua il du. Bera Oiartzuarra zan eta oso ezaguna bai erritarren artean eta baita bere lagun eiztari artian ere. Goian bego, eta bere guraso eta senideei gure benetako samintasuna.

EZTAIAK

Orain berriro ezkondu dira gure lagun jator Makazaga anaiak, Errentikoak, Oiartzun'go bi «lore» kin, Odriozolatar Maite eta Lasatar Maiterekin. Gu ere izandu giñan eztai ontan eta egun ederra igaro genuen. Mutilzar bideari utzi ta onena izango degu neska baten ondora joatea bestela aurtengo neguan kukutxa eztula billatzeko arriskuan berdin arkituko gera ta.

BAXURDE

zornotza-etxano

ZORNOTZA-ETXANO

Esaten dabe zelan, basapizti batzuek, negualdiko egun gogorrak zulo baten igaro eta gero, udaberrian urtetako garaia danean, leze aurrean jezarri-ta, lotxarria kendu eziñik, toki danetara begiratuz, noruntz, jo eztakiela aurkitzen dirala.

Iñungo lezetik eznaiz urten baña neu ere ainbeste denboran isillik egonaz, nagitasuna burutik orporaiño sarturik dedala konturatu naiz. Begiak ondo igurtzi bear izan ditut nunbain zeozer «ikusi» aal izateko. Zorionez, astinaldi ederrak eman da, azken baten, derriorez, aldendu bear izan dau alferkeria orrek. Eta oporrialdi luze baten ondoren, Zeruko ARGIA-ren irakurle eta Zornotza-ko adiskide maiteok, batez ere bolariak, ona emen nola aurkitzen naizen berriro ere suen artean.

IBIÑAGATAR EUKENEN OROIMENEZ

Ezer baiño leenago gomutaldi bat nire adiskide izan zan Ibiñagatar Eukeneri. (G.B.).

Zortzi illabete igaro da gaixo zantar eta labur batek eraman zuela gure «Ujunio». Euskal-Erriak euskaltzale zintzo bat galdu zuen. Beragaitik artu nuen euskerarako zaletasuna eta Zko ARGIA-ren arpide egin nitzan. Gure Jaunak Goiko Zeruan gorde dezala eta guk jarrai dagiogun beragandik artuko irakatsiari.

IX GARREN BOLARI TXAPELKETA AMAITU ZAN

Iraikaren 10 etik Urriaren 15 erako larunbat arratsaldeak eta igande goizak izan dira Sariketa au ebatzi diran egunak.

Sanbartolome, Etxano, Lezama, Epaltza, Garaitondo, Bernagoiti, Laudio eta Sanantonioko bolatokietatik zenbat bolari izan dan! Danok euren taldea aurrerengo ezarri nairik.

Danetik ikusi da egun oietan. Txirlo asko jausten eta beste asko lur, zinka eta torra. Baiña danok unore onean, amaitu da. Irabazleak eupadaka euren sariakin eta azkeneko maillan gelditu diranak datorren urtean zori obean izango diran itxaropenean.

Begiratu zelan gelditu ziran talde bakoitxa:

1	go	GALIZIA «A»	2.251	puntu
2	»	SANBARTOLOME «A»	2.189	»
3	»	SANANTONIO «C»	2.155	»
4	»	BERNAGOITIA	2.125	»
5	»	GALICIA «B»	2.111	»
6	»	SANANTONIO «B»	2.109	»
7	»	ETXANO	2.093	»
8	»	GARAITONDO «B»	2.072	»
9	»	LEZAMA	2.051	»
10	»	GARAITONDO «A»	2.048	»
11	»	SANANTONIO «A»	2.047	»
12	»	GALIZIA «C»	2.020	»
13	»	LAUDIO	1.975	»
14	»	SANBARTOLOME «B»	1.947	»

Amaiera oberik azen legioke eman. Ordu batetan gure ON FELIX en meza il diran (Eubatar Andres, Zarrionaindiatar Jerman Olanotar Jose (G.B.) gure bolari lagunak izan ziran arimaren alde.

Ondoren bazkari ederra 184 lagun maaian dirala.

ESKERRAK: Sanantonioko BAR JULI, BAR LAS HERMANAS, CAJA LABORAL, BANCO BILBAO, CAJA AHORROS VIZCAINA, CAJA AHORROS MUNICIPAL, BODEGAS ZUGAZABEITIA, BANCO VIZCAYA, ETA CONFECCIONES «SEMA»'ri izan dogun laguntasuna gaitik.

Aparteko eskerrak ERRIKO AGINTARIEI bederatzi urtetanizan ditugun sariak eta baimenen gatik.

Baiña ezta dana eskerrekin amaitzen. Badot zer esanik be, Alkate Jaunarentzat:

Agustin, sariak bananduten zabiltzela zure aldamenean nengoan, eskuma aldetik, esta enuen entzun zure aotik urteneko berbatxo bat ere euskeraz. Nun, eta Sanantonion erderaz? Ango entzule danak edo geienak euskaldunak ziran eta jakiñik zu euskeraz erderaz baiño geiago oitua zarela, gauza gaitza da konturatu barik egin ziñula siñestea.

Euskaldunak euskera maite ezien zer maite legike?

Zorienez, orain arte beintzat, Zornotzako bolari artean ueskera da nagusi.

TENPLE ETA ETXANOKO TXATUA MAÑEKIN

Munduan makiña bat gauza gertatzen da iñork ezelan ere uste izan ezarren. Begiratu orain arteko eguneroko edizkide biok, or dabilz batabestea gandik bananduta.

Txatuakin alkarizketa bat izan dot eta auxe galdera egin deutsat:

Zer Tiadoro? Nik ezin dot aditu ori zelan jaso legiken:

«Begiratu, lagun, ondo dakizu ni enaizela ona, baiña bera zer? Bera... TENPLE. Etxanoko bolari taldean sartu bear zala eta geurearterako zenbatu genduan. Joko aldi baten etzalako ipiñi izan zan asarrerako bidea. Bolari ona dala iñok eztau ukatu baiña ez deiela uste derrirezkoa danik. Gaiñera iskrisiñoko 100 lauerlekoak ukatu ditu nik ordaindu bear ditu dala esanez. Bakea gaitik gertu nago 100 lauerleko oiek ordaintzeko baiña kondizio batekin: Aitagurea ondo errezetan irakasten badeust. Ze, bola-egunetan errezatu bearra izan delanean zelako larrialdiak pasa ditudan!

Bai, Tiadoro, neu be zeugaz nago, bakea gauza ederra da eta eleizkizunak ikasteko irakasle oberik ez dozu billatuko.

ERIOTZAK

Urriaren 2an il zan Gorritxu eta Aranatar Pelix; eta Urriaren 17an, Etxebarriatar Antzelmo (kojua) (G. B.) Zornotzan oso ezagunak eta nire adiskideak. Sendi biori naigabean laguntzen deutsiet boitz-biotzez.

ARRINDAPE

oyal s. a.

Oyal eta eforru almazena

Paregabekoak

Bikañenak

GARIBAY, 4 - TELF. 14304

DONOSTIA

(c) Ministerio de Cultura 2005



LEGAZPIA



DEBA



PASAIA

legazpi

IKASTOLA

Udako oporaldietan, izadiak eskeintzen dizkigun ainbat jakingarri, mendi, zelai, eta ibarrak aztertuaz sakondu, eta atsedenaldi pozgarriak igaro ondoren, ikastolako aurrei, ikastaro berrien asiera iritxi zaie.

Urtearen zortzi-bederatzi illabeteko ikaskintzaren ondoren, bearrezko zaizkie gaztetxo auei opor aldi auek. Adimenak pixka bat lasaitu, buru austeak saiestu, eta gorpuzkiak jostari, izadiaren arnasa berri osasungarriz ase ditzaten, ikaslanetan diarduen gazteriari, mesedegarri, ain zuzen, atseden aldi atsegengarri auetxek.

Gaur egun, jakintza eta ezierak, etsipen estuan loturik dauka gazteria. Ondorengo gizartearen oiñarriak, auetxek bai dira. Izango dute, noski, zer erantzun, sendian, errian, aberrian sor ditezken erazo sakonei burubide emateko. Beren gain izango dute izkuntza, eta oitura zaaren etorkizuna. Euskal erriaren geroa, auen esku bear. Mundu obearen kezka mingotsa zastaka dutelarik...

Ona emen ikastoletako aurrak beren jakintza, ta eziera aldetik, arduratsu jokatu bearraren kezka gordiña.

Ikastaro berriek, onelatsu antolaturik eman diote asiera. Gaztetxoen maillan, iru urtekoak, 43. Lau urtekoak, 38. Bost urtekoak, 43. Oñarri ezierako ikastaroan. Leenengo maillan, 41. Bigarren mallian, 40. Irugarren maillan, 31.

Zazpi andereñoen artean banaturik, 141 gaztatxo, eta 122 oñarri eziera ikastaroak artu dituztenak. Danera 265 ikasle.

Urterik-urte ugalduaz doazkigu ikastolako aurrak. Goi-maillako ikaskizunak artzeko atzeratuxeak arkitzen dituzten iritzi kaxkarra badu zenbaitek, iritzi ori gezurtatzen duen agerkai ziurra, ikasleak ugalduaz doazkigula, ain zuzen.

Ikastoletako andereño, eta zuzendariak, ondotxo oartuak bai daude goimaillako ikaskizunetarako erreztasun nabarmena dutela, amaren magalean arturiko euskal izkuntza goxoan asiera eman ondoren, erdal ikastaroetan jarraituaz ele-biren jabe diralarik, trebe bai dira nai erako jakintza eta eziera osatuen jabe izateko.

SARITUAK

Urretxun ospatu berri dan marrazki eta margo leiaketan, berrogeiren bat baziran parte artu zutenak. Auetatik leenengo, bigarren, eta laugarren sariak irabazi dituztenak ere bai. Baditugu Legazpin marrazki ta margo lanetan esku ona duten ikasleak. Zorion beroak denoi.

Artzai-Onaren ikastetxeko, eta Teresa Donearen ikastetxeko dantza taldeak, orain illabete batzuek dirala Donostian ospatu zan dantza taldeen leiaketan irabazitako sariak jaso dituzte. Talde bakoitzari, leenengo sariei dagozkien domiña ikusgarriak eman dizkie. Aurrera gazteok, euskal dantza jator oiek dantzatuaz, eta zorionak.

AN-ZAN

pasai san pedro

DORRE ENPARANTZAKO EDER-LAN EDO "MONUMENTUA"

Naiz Kai berri edo kale zaar aldetik, Sanpedroko Almirantearen Dorrea deritzaion enparantzara iñor iristen danean, itsas aldera alegia, txuriz margotutako oroigarri edo "monumentu" bat ikusiko du. Iru tantai edo zutoiz egiña dago eta bere oiññ eta arri batean idatzirik auxe irakurtzen da: "Altzairusko 687 zuntoi,ren gañean Sanpedroko arrantz kai berria arkitzen da; beren zulko edo tinkatu guzia 12.506 metro izanik". "1971, garren urtean, Pasaiko kai Batzordea".

Lantegi au egin duanak, esaten du: "Eder-lan bat toki agirian jartzen danean bere egiteko garrantzitsuenetako bat betetzen du, au da, geienek ikus dezaten, beren eguneroko joan-torriak gogora eraziaz, onela, eder lana egin dan garaian, garai onek barren-gogo, jakintza eta eder-lanen ezaugarritza ekar ditzan...

Eskultura bukatuta dago, baiño egia esan, aurrenetik onela egiteko asmorik ez zan izandu... Antziña, eder-lan ori jarri nai genduan lekuan, Dorre edo gaztelu bat, itsas zaindari bezela, arkitzen zan. Gaztelu onen gaurko antz-irudi bat egitea erabaki nuan, au da, bost metro gora eta zortzi metro zabaleko burnibiribil bat, itsasontziak atera eta sartzen ikusteko "atalai" edi ikus-tokia. Baiña asmo au betetzerik ez nuan izandu, kaieko agintariek, Almirantearen Dorreko enparantza, ibil bidearen bukaera bezela jotzen ez zutelako eta kai bera oraindik itsas aldera geiagoluzatu nai dutelako. Ezin, bada, gaztelua enparantzaren erdian jar, ibilbidearen galerazi garri izango zalako.

Au dala ta, beste erabaki bat artu bear izan nuan. Toki gutxi edo estua artuko zuan eskulturak, baiña tantai luze baten antzekoa izanik. Arrantzako urontziak obeki eta patxara aundiagoaz lotu zitezen, kai berria egin zan eta baita ere "pilote" edo zuntoi ugari ur azpian sartu. Au dala ta, kaieko agintariak asmakizun baten billa zebiltzan, zuntoi oien gogoangarri izan zedin, zuntoiak bai ziran kai berri langintzaren leenengo edo aintzandari. Orregatik, burubide bat eman nien eta ontzat artua izan zan... "Monumentu" edo eder-lanaren antz-agiriak, inguruari zor zaion edertasun eta dotoretasunik urratu gabe, Pasai Sanpedro, Pasai Donibane eta Pasai Anzori derizkion batasun eta anaitasunaren gorazarre edo omen-aldia emango zion, onela, itsasoan ildako beren semeen oroigarria gogoratuaz...

...nere eder-lana, aizeaz zabaltzen dan ego txuri baten antzera, dijoazten agur eta datozen ongi-torri besarkadaren ezaugarria da".

(Basterretxeatar Nestorek idatzitakotik euskeratua).

mutriku

EZKONTZAK

Ezkon-deietan arkitzen dira Juan M.ª Arrizabalaga Iriondo, M.ª Belén Fundazuri Bikandirekin; Eugenio Iriondo Etxeberria, Bekoña Arriola Ansotegirekin; Tomas Eizagirre Agirre, Amaia Andonegi Yurritarekin; Jose Agirregomezkorta Lezertua, Estibalitz Gorrotxategi Elorzarekin; Gregorio Madera, Miren Beitia Alkortarekin; Jabier Andres Kamino, Ana M.ª Reyes Elezgarai Arreitunandiarekin; eta Jose Antonio Hernandez, Margarita Merino Eizagirrerekin. Guziei gure zorionik sutsuenak.

EZBEARRAK

Uste-uste gabeko zoritxar baten bitartez Donostiako Ama Korokoaren sendategian arkitzen da Andonegitar Miren Lore, anderea.

Baitare Donostiako Residenzia etxean, bat-bateko ezbearrean iztarra autsirik Ugartetxeatar Petra, anderea.

Mutrikun berriz, itxumustu batean jausi eta buru eta anka zauriturik oeraturik arkitzen da Larrañagatar Jabiera, anderea.

Azken aste auetan gaxorik arkitzen da Arreitunandiatar Martin "Tolon". Arrantzale zintzo eta abeslari iaioa. Leen bai leen sendaturik ikustea opa diegu.

ANTZERKIA

Goizeko Ibarrako Antzerki Taldekoak jo ta ke ari dira antzerki berria gertutzen. "APAIZ, LANGILLE TA GIZON" Iñaki Begiristain jaunaren antzerki mamitsu, bikain ta gaurkotasunez jantzia. Mutrikoarrak antzerki-zale diranez, lan oni guztizko arrera ona egingo zaiola deritzagu. Lan eder eta sakon au Azaroaren 3an, gaueko amarretan EDERRENA aretoan izango dugu.

D. CORNELIO JOAN ZAIGU

Guziok dakigun bezela, Arrietatar Kornelio apaiz jaun agurgarria Ikastegietako Erretore izendatu dute. D. Korneliok sei urte igaro ditu gure artean, Eleiz Parrokiaren babesean zintzo jokatuaz, beti apal, beti zuzen. Gazte taldearen buru, eskola profesional-ko irakasle ta abar. Azken igandeko meza nagusian erri osoari AGUR egin zion, bere itz goxoaz beti bezala, apaltasunez beterik ¡Agur D. Kornelio! Zori asko opa dizuegu erretoretzako bizitza berri ortan. Agur, eta ondo izan.

LAU

idiazabal

GAZTEEN EGUNA

Urtero bezela, ospatu dute gazteek beren egun edo jaia. Aurreko urteetakoak ederrak izan badira ere, aurtengoak ez du iñoren inbiririk izan. Eguraldiak ere lagundu zuan eta Idiazabalen bildu zan jendetza ez zan berriketakoa izan.

Goizeko zortzietan eman zioten ibillaldi neurtuari irteera; berrogeitik gora ziran parte hartutako taldeak eta gehienak arrotzak.

Eguneko ikuskizunik garrantzitsuena, Euskal Herriko bertsolari txapelketaren bukaera izan zan; goizeko hamaika eta erdietan ekin zioten kantari bederatzi bertsolarik, Agirre baitzan hamargarrena, baiñan ebakuntza bat zala-ta ez zuan parte hartzerik izan. Eguerdiko saioaren ondoren herriko ehiztarien biltokian izan zan bertsolarien bazkaria; hango giro eta umorea nolakoa izan zan ez dago behar bezela idazlan baten bidez adierazterik.

Arratsaldeko bost eta erdietan eman zitzaion azken saioari hasera, Idiazabalgo enparantza bete betea arkitzen zan. Noiz izan ote da horrenbeste jende gure herrian?

Bertsolariak hauek ziran: Igarzabal, Lizaso, Zabala, Etxaluze, Goiburu, Narbaiza, Alberro, Iraola eta Muñoa.

Saio borobil baten ondoren Euskal Herriko txapeldun Eusebio Igarzabal Gabirikoa aukeratu zuten; bigarren Kosme Lizaso Errenteriakoa eta bertsorik onenaren saria Zaldibiko Patxi Iraolarentzat izan zan. Patxik haur atzeratu bati bota zizkion bertsoak ez ziran nola nahikoak, goren-goren maillako bertsolariei ere horrelakoak entzuteko saio bat baiño geiagotara joan behar izaten da. Denek bete zuten ongi bere eginkizuna. Badirudi bertsolaritzak irriparrezko etorkizuna duala berekin, batzuek isiltzen dijoazen eran, oñordekoak gogor datoz atzetik eta honek guziok pozten gaitu.

Epai mahaikoak hauek izan ziran: Bordari, Danda, Agirre, eta Zabala. Gai jartzaillea, Aseginolaza. Bilore, Maffre, Lankideen Aurrezki Ontzia eta Idiazabalgo udal-etxeari esker antolatua izan da txapelketa hau eta beste laguntzaille asko ere izan ditu nahiz guzien izenak hemen ez azaldu.

Illunabar eta gau Semper anaiek enparantza alaitu zuten beren soiñuz.

Horrelako jaiak gutxi izaten dira eta saia gaitezen urtero antolatzen, hortarako geure aldetik eman dezakegun laguntza eskeñiaz.

AXARI

azkoitia

IKASTOLA

Oztopo eta traba ipintzaileak ugari ditu gure ikastolak, bainan laguntzaileak ere badituala ikusten dugu. Batetik gogoan dugu, ikastolari iritxi zitzaion oker bat zuzentzeko, gure herriko langilediak, eskeini zuen laguntza, hots, ordu bat sartu zuten bakoitzak eta ordu haren balioa, ikastolari eman zioten. Bestetik berriz oraindik orain, Aurrezki Kutxa Munizipalak, ikastolaz ohartu zaigu eta diapositibak azaltzeko tresna eskeini du. Besterik ez bada ere lerro hauen bidez, eskerrik beroenak eman beharrean arkitzen garela uste dugu, lagun tzaile denei. Esker mila eta ea denon artean aurrera ateratzen dugun gure herriko ikastola.

AIZKIBEL

Aizkibel gora eta Aizkibel behera, hontan ari ziren mutil bi iragan zen egun batetan. Ez datak eta ez besteak, ez zekiten nor zen gizon hura. Gizonen bat izanen zela uste zuten, hori bai. Solasaldian parte hartu nahirik urreratu ginen, eta berehala esan genien, hain ez ezaguna zuten gizon hura batetik azkoitiarra zela eta bestalde bere garaian euskara ikasten eta lantzen saiatu zen gizon bat gainera. Eneka azkoitiarra al zen ba! erantzun ziguten eta gure aldetik Azkoitiko gizon ohoretsuen berri pixka bat bederen jakin dezaten, liburuxka bat eman genien.

TXINPARTAK

deba

HERRI PETRALA

Hala dio Amatiño adiskideak, gure herriagatik, Umeen Eguna aipatzerakoan. Badu arrazoirik asko hori esaterakoan, zoritxarrez.

Baiña ez da gurea bakarrik honelakoa, noski. Petralkeria franko agertzen dute gurera etortzen direnek ere, zoritxarrez.

ALBISTE ON BAT

"Centro Asistencial" bat egin behar dutela Itziarren jakin dugu. Hainbat ez behar egunero dugularik, denok dakigu zeinen beharrezko zaizkigun honelako etxeak. Ziur ez gaude, baina lantegietako gaixo eta zaurituentzat izango ote dan entzun dugu.

Ontzat eman dezagun berri hau, baina ez gaitezen has erronkak jotzen. Gutxitan aurrea hartzen diegu arazoiei. Oraingoan ere ez, noski.

ESKOLA BERRIA

Udaletxeak erosi ditu Lertxundi kaleko lur-sail batzuk. Berton eskola bat zabaldu dute haurtxoentzat. Toki onean eta jolaslekuz ondo hornitutakoan, gainera.

Baina, gure ustez, ez du sorrera jatorra izan. Ez zaio ezertzo ere herriari galdetu. Badugu denon izerdiz aurrera doan ikastola. Bazkide, laguntzaile eta gurasoak aukeratutako batzordea du gidari. Haurrak euskal-giroan hezi nahi badituugu ez al zen bidezko ikastolako jendeari galdetzea?

Jokaera horrek eztabaida eta zalantza haundia sortzeko arriskua du jendearen aurrean. Gertatu den bezala gertatu delako batipat. Beraz, ez dugu sortzeko era ontzat ematen.

BILERA BIKAINA

Urriaren 8an Z. Argiakoek izan genuena. Zentzuz, jendetasunez eta gizalegez egindako batzarra izan zen. Askok ez genuen elkar ezagutu ere egiten. Baina lasai agertu zituen bakoitzak bere iritziak.

Z. Argia hobeagotzeko asmoak hartu ziren itxura aldetik, euskera aldetik, eta gai aldetik. Honelako batzarren beharra sumatu genuen. Eta berriro ere biltzeko asmotan etxeratu ginan. Zonionak zuzendaritzari.

IDIAKEZ

ZERUKO ARGIA SALTZEN DA:

ELGOIBAR
M. Goroetiaa

EIBAR
Angera
Markina
Iriondo
Eguren
Gisasola
Barela
Alday
Aranburu
Estanko, 11
Isasi
Simon
Amane
Uraul
Urizar
Sigle XX

(c) Ministerio de Cultura 2005



TOLOSA



BERGARA



ZUMARRAGA

tolosa

Orok dakizuten bezala gure hirian ere, Euskal-Herria guzian bezala badira hainbat gastronomia elkarte. Herriak soziedadeak bezala ezagutzen ditu. Esan beharrik ez dago harrera ona dutela gutartean, eta gehienak ederki beteta ikusten dirala eguneroko atseden unetan. Batzuk badira, oso guti, kulturaz ere arduratzen diranak, apur bat bederen. Erakusketan bat dela, edo hitzaldi bat edo beste, gehienetan hortxe amaitzen da hoien eginkizuna.

Baina goazen aurrerago. Beren bereizgarririk nabarmenena, tripazaintzea izanik, harrituta gaude nolaz ez duten gai honetaz sariketa bat edo beste antoaltzen. Alegia gastronomia sariak esan nahi genduke. Hauek alderdi on bat izan lezakete irakaskintza aldetik, zenbait janariren moldaketaz eta zergaitik ez, sozial arazo bat ere bete dezatelanoski, platera merke batzuek edo publikoari erakutsiaz.

Dena dela guk gaur, soziedadeak aipatu baditugu, hauek eginkizun jator bat bete lezaketela ohartzen garelako izan da batez ere.

Adibidez, badira batsuk, jaialdi onurakorrak egiten saiatzen diranak Miserikordirako, «Gota de Leche» delakoantzako etb. Hoiek danak ondo ikusten ditugu eta bertatik txalotzen ditugu.

Baina nik dakidanez oraindik ez zaio inori bururatu horrelako jaialdi bat gure ikastolaren alde egitea. Edo behar bada inoiz pentsatu du, baino oraindik ez du aurrera eraman. Ez ote da gure herrian holako jaialdi bat eginen duen elkarte bat?

Nik baietz uste dut. Behar bada ez diote inork eskatu eta honengai tik edo beste zertxoren gaitik behintzat egiteko dagoela orandik.

Nere aldetik ideia bat emango nuke horrelako zerbait taxutzeko. Eta hau, lehen aipatu dudan Gastronomia Sariketa bat izanen litzake. Honetan Pasai Antxio-ko elkarte batek eman du exenplua. Joan zen irailean hain zuzen eginik du eta, benetako irabazpidea izan du noski. Gutartean hain ezaguna den marmitakoazela gai, 35 lagunek jokatu dute norgehiagokoa. Gero bazkari herrikoi bat egin zen han moldatu ziren kazuelekin.

Hau aurrera eraman ahal izateko ukan dute hainbat laguntza jator. Batekoz beste antolatzaileek ez dutela diru askoren beharrik izan antolamendu hau aurrera eramateko.

Uste dut gure soziedadetako batek, hau egin ezinik ez duela. Beraz ideia emana dago eta ea zeinek jasotzen duen. Laguntzarik ez zaio faltatuko gure aldetik.

Tira ba mutilak, aurrera. Veleta-ko gazteok zer? Zuek arazo hoietan iaioak zerate! Ala ez?

ASKALEKU

eibar

ASTELENA

Urte batzuetan egon da Eibar osoa Astelena frontoia noiz zabalduko ote zan galdezka. Azkenez pozik ikusi dugu nola leengo berotasun ura eta posturak zorionezko edo zoritxarrezko oitura ere bizirik jarraitzen dutela.

Garai ontako pelotaririk onenetakoak etorri ziran lenengo iokoak ospatzeko eta "Gure Miguel" izan zan sakea eman zuana. Luis M.ª Segurola apaiz jaunak bedeinkazioa emateko orduan pelotazale jaun andre askorekin batean, Jabier Izaguirre (Pelotako vicepresidentea), Jesús Iriondo (F. P. P.-ko presidentea), Alberto Vidarte, Enrique Abril, Atano III ta Miguel Gaᵃastegui jaunak alkate ta udalarekin batean ikusi genituen.

Alkate jaunak udalaren izenean eman zuan itzaldian beste frontoi batzuk egiteko asmoa agertu zuan. Frontoi Eibarko gazteriaren artean kirol au galdu ez dadin izango dira, bere itzaldian esan zuanez beintzat.

Garrantzizkoa da Alberto Vidarte, Astelenako Gerente jaunak, Hospitalean aurkitzen diran gizonentzat, sarrerak eman zituala azaltzea.

Zorionak frontoi berri eta laguntza onegatik.

FOBALLA

Ikastolen alde jokatutako foballean Eibar-ek irabazi zuan 2-1 egatik Elgoibaren ta 3-2 gatik.

Kruzetatar Odile.

zumarraga

SALBATORE PARROKIA

Gaur, Urriak bat eliztar talde gartsu baten arnasarekin berotuta, eta Gotzai jaun eta erriko apaizen onespenarekin babestuta, auzoan SAN SALVADOR parrokiaren berria zabaldu da.

«Au da eguna Jaunarena,
gaur piztu baita Jesus Jauna!
Poz pozik kanta; Gora Jauna!
Zer zoriona! Zer eguna!»
Egun zoriontsu ontan, amalka eliztarren aspaldiko Irrika garratza amaituda. SALBATORE parrokiko erretore On Jose M.ª Larrañaga degu, apaiz eta gizon argia. Parrokiaren jabe egitean delako erretore jaun onek, argitara ditu bere eliz barrutiko ardiei buruz alako orritxo batzuk, bere barru nortasuna agertzen dutenak, eskeintzen delarik guztl-guztia emanak izan zaiozkion ardien alde. Orri auen bidez azaltzen du parrokian onek bere gain izango duen erriko lur zatia. Era berean adierazten du eliztarren artean sortzen diren artu emanetarako bere lan-lekua irikita egongo dala.

Asteleenean ez da Izango batzarrerik. Beste egunetan, goizetik, 10,30 tik 12,30, Arratsetik 6 tik 8 tara. Ostegun eta larunbatetan ez da izango batzarrerik.

Oraiñgoz, Ezkontzak eta Illetak Eliz-nagusian izango dira.

AZKARRAGA

irakurleak mintzo

Irakurri dut, gogoz irakurri ere, Urriaren amabostean argitaratu duzuen editoriala. Bertan indartsuak indartsuago agertzen direla adierazten zaigu, eta ongi adierazi ere.

Komunikabide tresnak erabiltzen dituztenek badute indarrik asko, eta beren eginbidea ez da sarritan gizalegeari dagokion oietakoa izaten. Orregatik, bertan egindako aipamenari garrantzi aundia duela derizkiot.

Alaz ere, lan ori zerbait geiago eskatuko nioke. Izan ere, urruti samarreko exenplu eta adibideak ipintzen dizkigu.

Gure inguruan gertatzen denaren azterketa bearrezkoa zaigu. Egiazko Indarduna nor den, eta noren bizkar indartsuago biurtzen ariden ezagutarazi beharko luke lan orrek. Dena den, pentsatzeko eta erabakiak arrerazteko lan egokia dela esango nuke.

Azkenik, barka bekit, inprentako-edo uts asko ikusi dut lan orretan. Ez ote da arazo ori konpontzea posible izango?

A.M.
(URNIETA)

ZERUKO ARGIA BIZKAIKO ERRI AUETAN SALTZEN DA:

MARKINAN
M. Loli Aginaga, Artibay, 24

GONDIKA-ASUA
E. Astarloa

LARRUSKAIN
Parrokia

GERNIKA
Ruiz Bustillo

ONDARROA
M. Zulaika

BILBAO
Librería Armendáriz
Dr. Areilza, 50
Librería Azkategui
Cinturería, 4
Librería Bilbaína
Plaza de los Mrtires, 9
Librería Verdes
Correo, 7

GALDAKANO
J. Altuna
Urreta, 34

ABADIANO
J. F. Zubero
S. Prudenzio, 7

JOSE ZINKUNEGI'REN
OPTICA BERRIA DONOSTIAN
URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
Hernani, 4 DONOSTIA

NORK KUKURRUKU¡¡¡¿¿¿
OLLARRAK
OLLOTEGIAN?
...Ez. FAGOR'ek
sukaldian

«EUSKERA HIRE LAGUNA» LEHEN LIBURUA,
PATXI ALTUNAK EGIN ZUENA,

berriz argitaratuko da. Liburu eder hau, zerbait bederen, osatu eta hobetu egingo da. Lehenbiziko hartan ez bezala oraingo honetan euskera batuan argitaratuko da.
Erosi nahiko lukeenak eska beza: **Bilbao. Apdo. 72.**

(c) Ministerio de Cultura 2005

ELIZAREN BERRI



«Gaur Eliza beldurtu eginen ote litzake gaurko martiritza gisa batetaz?»

GOSE-OPORRA ETA EBANJELIOA

Aspaldi honetan, sarritan entzuten dugu, halako nahiz bestelako tokitan gose-oporrari egin diola halako edo bestelakoak.

Lehen ere, astekari honetan eta ELIZAREN BERRI sail honetan aipatua dugu Brasilgo zenbait preso politikok eginiko gose-oporra.

Bigarrenez, ekainaren 9an hasi ziren eta uztailaren 8an amaitu. Ez zen berriketazkoa izan!

Amaiera horretan, eragin handia izan zuen Sao-Paulo-ko artzapezpikuak eta haren gotzai-lagunek eta presbiterium argitara emaniko ageriak; honela zion, besteren artean: "Diozesiak ez dio inoiz ere indarrik eman gose-oporrari; izan ere, Ebanjelio-argiz eta moral katolikoaren aldetik, ezin onartuzkoa jotzen bait du...".

Baiezpen honek hauts franko harrotu du munduan. Hain garbi ahal dago, gose-oporra Ebanjelioren aurka doala? Hona zer dion Paul Ricoeur-ek: "Benetan txunditu egin gaitu Arns jaunak argitara eman duen ageriak, esanez, gose-oporra Ebanjelioaren eta moral katolikoaren aurka doala. Baieztapen handia; izan ere, badakigu, hankapean dagoen askok jotzen duela ekintzabide horretatik, indartsuagoen eskutan dagoen askok.

Gaur Eliza beldurtu eginen ote litzake gaurko martiritza gisa batetaz? Hasierako kristauek ez ahal zuten nahiago izan heriotzera gaitzetsiak izan, fede ari, hots, beren giza-askatasunari uko egin baino? Horrez gero, zer dela-eta ez dezakete gaurko preso politikoek beren bizitza arriskuan ipini, beren gizatasunari, hots, iritzi bat izateari eta adierazteari uko egin baino lehen? Izan ere, gartzelan badaude, eskubide horretaz baliatu direlako da, eta brasildar epai-sistimak erauzi nahi diena, haien giza-dintasunaren azken arrastoa da".

Artzapezpikuak nahi zuena, hilabete gose-oporretan zeramatenei atzera egin eraztea zen. Baina, hori lortzekotan egin duen baieztapena, gauza handiagoa da. Nolaz gaitzets diteke fedearen izenean gose-oporra? Aldiz, esan diteke, ikusmodu jator eta handi baten ondorioa dela: horrela jokatzen duenak, balio handienatzat gorputzezko bizia ez, baizik balio handiagorik badela ezagutzen du. Barkatu, esakun horretan dikotomia apurren bat ageri bada, baina mamia ageri da.

Agian, gaitzespen hori ez ote da, horrelako ekintzarako gauza ez garenon burupidea?

KRISTAU-IKASBIDE BAT BAZTERTUA HOLANDAN

Badakigu, lehen, orain zenbait urte, kristau larrientzat antolaturiko kristau-dotrina liburuarekin komeria franko izan zutela Holandan. (Bidenabar, esan dezadan, liburu hori datorren urtean, eta JAKIN-ekoen ardurapean, euskaraz ikusiko dugula). Orain, berriro, beste maila batetako kristau-dotrinarekin dute Holandan bertan. Diozesia bitan entsegu bat egiten ari ziren bigarren mailako irakasleari. Ba, zirt-zart, Erromatik, liburu hori baztertzeko agindua heldu zaie bi gortzairi.

Uste nuen, makinismoa Alemanian-edo bakarrik zegoela sarturik; baina, ageri da, Erroma aldean ere aski gogortua dagoela fenomenu hori: konponketarik ez dago, hori ez eta kitto, Roma locutta est!!!

EZKONGAIEN GERTUKETA, EZKONTZARAKO

Beljikako gotzaiek ageri bat argitara eman dute ezkongaien gertuketari buruz. Funtsean hau diote: federik ez, eta Elizaz ezkontzea eskatzen dutenak, gero eta gehiago dira; sakramendurako ataka izin irekitzen ahal horrelakoei, besterik gabe; horregatik, apaizak ez dira aski arazo hori aztertzeko, eta berari irtenbideren bat topatzeko; katekumeno-eskolak-edo antolatu behar lirake; Elizaz ezkontzeko, nahitaezkoa da Kristo sinestea; hori ezean, zentzurik gabekoa litzake Elizaz ezkondu nahi izatea. Halabaina, fede sakonetik fede-ezara tarterik badago; horregatik, ez diteke, ez zorrotzegi izan sakramenduak ukatzen, ez lasaiegi ematen. Beraz, ezkongai biren batengan fede izpiren bat nabaritzea, beharrezko da. Eta, azkenik, fedeaz hausnartze bat eskatu behar litzaieke ezkondu aurretik, fede-heldutasunera hel daitezen.

FRANTZIAN NORK BERE BURUA HILTZEN DUTENAK URTEAN 15.000

Erresuma industriatu gehienetako izurria dugu fenomenu hori, hots, nork bere buruaz beste egitea. Frantzian hamar milatatik hamabost milatara.

Batez ere, astearen azkenean nahiz oporralditan gertatu ohi zaie krisialdia bihotz-eroriei.

Fenomenu horren arrazoina, sendagile, sikolari eta soziolariek honetan datzala diote: hiritako bakardadean, non bat numero bat bihurtzen bait da, taldean nahastua, axaleko beste harremanei bide ematen ez dion gizarte honetan. Bakardade eta anonimatu horren aurkako erremerioak oravino hasi-masian daude.

Erremeriotako bat gure arteko Jai-aretoak ote? Lehengoak gutxi bait liran, Goiherrin beste berriren bat ba omen dugu: Beasainen.

ASKATZEAREN TEOLOGIA

Gustavo Gutierrez, Teología de la liberación"delako liburuaren egilea dugu, peruarra, Salamancako Sigueme argitaldariak argitara eman, eta aste gutxiren buruan agortu denaren egile. Eta uztailaren 7tik 15era Escorialen bilduriko batzarkideetarik nagusienetakoa.

Zer dio funtsean autore honek lerro-sail honi ezarririko gaiari buruz? Hona labur eta korrika:

1) Iraultzaren teologia eta Askatzearen teologiaren arteko aldea.

Askatzearen teologia esakunak, iraultzaren darakargu burura, besterik gabe. Baina, bada alderik bien artean. Bata, iraultzaren teologia alegia, honetan datza: kristau asko iraultzabideari atxiki zaiolarik, Bibliara jotzen da jokabide hori zuritzeko arrazoin bila. Garai batetan giza-egoera bati egokituriko Jainkoaren hitza, orain gure egoera berdintsuari egokitzea izanen litzake arazo guztia, delako teologia horren arabera. Alemanian jaio eta garaturiko pentsabidea.

Askatzearen teologiak, aldiz, beste abiaburu bat du. Iraultzabidean sartzeak, kristaua lehen ezbezalako kultura, —politika—, gizarte munduan sarrerazten diela jotzen du teologia honek. Politikazko munduan berezko legeak atxematen hasten da. Esate batetarako, Eliza, nahitaez, politikagilea dela aurkitzen du. Politika bera ere zientziabidez aztertu behar deia, iraultzazko ekintzan eginkortasunez jokatzekotan. Gainera, politikazko mundua sesiozko mundua dela topatuko du kristauak, eta ez bake idilikozkoa, eta iraultzabideari ekitea giza-maila arteko borrokan murgiltzea dela.

Horrela, fedea bizitzeko modua aldatu egiten zaio kristauari; lehen bizi zuenaren aldean, arras desberdin izanen du aurrerantzean. Kristau-bizitzako arazo nagusienak beste ikuspegi batetozik begiratzera bultzatzen du askatasun teologiak.

2) Giza-maila arteko borroka gertaera bat da: hor dagoena.

Giza-maila arteko borroka hor dagoen gauza da. Horrez gero, galdera hau egiten ahal da: gertaera hau, hots, hor dagoen giza-maila arteko borroka Ebanjelioarekin uztar ahal diteke? Eta arazoa hau litzake: gure gogotik at, gure federatik at, borroka hori hor dagoenez gero, nola kristau izan hor barruan? Erantzuna hau izanen litzake: zangopean daudenak eta zanpatzaileak maitatuaz, baina batzuekiko eta besteekiko maitasuna tankera desberdinekoa izanez. Zanpatzaileak maitatu, beren alienaziobidetik ateraziaz; zanpatuak maitatu, beren alienaziobidetik ateraziaz. Baina, hain desberdina izaki bien alienaziobide hori!

Bestalde, Elizako batasuna ere ez da hartu behar egin eginiko batasuna bezala, egiten doana bezala baizik.

3) Politika konpromisoa, zer da?

Politika alderdi erreformista nahiz iraultzaile batetan sartzea? Zenbaitetan beharrezkoa gerta daiteke hori. Baina, berez, ez da nahietaezkoa. Politika-kompromisoa, hori guztia baino zabalagoa da. Guztien gain, giza-maila baten alde aukerabidea egitea da; giza-mailarik gabeko gizartearen aldeko aukerabidea.

4) Askatzerik gabe desarroilobiderik ez.

Egiazko desarroilorik ez diteke egin askatze-prozeso baten barruan beste. Hego-Ameriketan ez da txarresten desarroiloa, "desarrollismoa" baizik, hots, gizartea aldatzea ez baina ukitu batez zerbait hobeagotzean datzan erreformista politika alegia. Hau da txarresten duguna. Askatzea deitzen duguna, orain zenbait urtetatik hona datorren arazoa da; Hego Ameriketako herriek menpeko garela konturatu garenetik hona datorrena.

Nazio-arteko borroka dago hor jokuan. Eta, bestalde, nazio barruko oligarkia, nazio zapaltzaileen esku-makila bezala hartzen dugu.

Gizartea aldatzeko zientziabidezko analisia eskatzen dugula, eta analisia horretarako zenbait marxista konceptu onartzen dugula? Eta zergatik ez? Ba ahal dago gaur egun gizarte baten analisiarik egiterik, marxismoaren zenbait konzeptutara jo gabe?

Zer egiten ahal duten Europako herriek desarroilo askatzaile horren hildotik eta Hego Ameriketaren alde? Esate batetarako, eta lehendabizi, aztertu norberaren erresumak munduko ekonomia sistiman duen eginpidea; gure morrontza lanea duen parteaz jabetuaz gero, lagun gaitzake edozein erresumatako kristauak; bigarren, elkarren artean harremanetan jarrai, batak bestearen berri izatekotan; hirugarrenez, Hego-Ameriketara doazen europarrak ez ditezela haruntz joan, iraultza honela egin behar da, esanez.

ZIPRIZTINAK

—Bat baino gehiago azaldu da AMUNSA nor edo nortzuk ote litekeen edo litezkeen jakinmin larriz. Behin, AMUN=Amundarain eta SA=S. A.)Sociedad Anónima); bestean, AMUN=Amundarain eta SA =Salaberri ala Salamanca ote lirakeen; Salaberri edo Salamanca Amundarain-en bigarren abizena ote litzakeen alegia. Eta nik ahal dakit zer gehiago?

Ezizenez argitaratzen dugunok, aurpegia eman behar gendukeela...

Halako jakinminak urdaileko minik ekar ez dizaion inori nere hau dela-ta, arastro bat irekitzea ez da gaizki izanen. Batetik, AMUNSAk ukitzen dituen gaiek, zein eta nongoa denaren aztarrenaski garbia daramate. Bestetik, AMUN-en azalpena Amundarain dela dakitenek, jakin behar lukete ere, bigarren abizena non topatu. Orain dela urte bat edo bi, ahotan asko ibilitako abizena da bigarren hori. Baina, ahotan ibilitako abizenekoaren herri berekoa izanagtik, arazo harekin zerikusirik ez duena.

Garbi ahal dago?

—Goiherriko lau herrietan hasiak dira Sendotza sakramendua hartzeko gertuketarako hitzaldi eta talde-lanak. Urriare n17an zen lehenengo hitzaldia. Herri horietako batetako erretoreak ez omen zuen ekintza horren berririk aipaturiko egun hortararte, hots 17 arte, eta hori, hil honen beraren 5ean edo 6an ondoren ematen dugun idazkia bere etxean zuelarik (esan behar da, lan hori, gertuketarako lan hori, herri horretan, koadjutore batek hartu zuela bere gain). Ez ote daki erretoreak irakurtzen, ala? Eta jakina (oi jainkotiar zentralismoa!!!), ez bide litzake gauza egokia kanpoko beste apaiz eta fraileentzat lanbide horretan eskuartzea, "Misioa" erretorearengandik hartu ez dutenez gero.

Hona, Sendotzarako gertuera dela-eta herri horretako apaiz guztiei emaniko, eta aipaturiko, idazkia:

SENDOTZARAKO PLANA

GERTATUA.— Maiatzean Sendotza egitea onartu ez zelarik, (eman ziren arrazoinak bere garaian) lau herriok batera: Idiazabal, Itsasondo, Lazkao eta Zaldibik, kondizio batzuen baitan eta prestatzeko behar zen denbora harturik, Eguberri aurrerako proposatu genion Apezpikuari. Honek gure asmoak onarturik, hasiak gara antolaketan, lau herriok batera berriro ere.

ZER PLAN DEN

—Hara, 16-19 urtetako gazteak bakarrik hartzea oraingoz.

—Gero, 16-16 urtetakoak harturik bi urtez behin-edo egitea Sendotza.

—HELBURUA: bizitzari buruz gaur egungo gazteak zer jokabide dituen aztertzea, eta horretan kristau ikuspegi motibazioak zer-ikusi duen char dadin laguntzea. Ondorioz, fedearen eskakizunak zeintzuk diren jabetzen delarik, Sendotza, askatasunez eta libreki hartu nahi duenak har dezala.

—METODOA: bi parte izango ditu: hitzaldiak eta talde lana. Astean hitzaldi bat, gai berezi bat jorratuaz; aste oro, baita, beste egun bat talde ttikietan gaia eztabaidatu eta zenbait puntu argitzeko. Honek, hizlariak (herri bakoitza gai bat ikastera hitzemanik gara) eta talde lana xuxentzeko arduradunak eskatzen ditu.

—URRIAREN .15-22 astean basiko da Sendotzarako prestaketa.

OHARRAK

—Adin horretako gazteei bat-banaka pasako zaie deia, aurrez egin den plana elkarrekin xuxendu edo eraberritzeko, eta ahalik egokien burutzeko.

—Ez da bidezko iduritzen, pulpitutik edo bestenaz gurasoak zirikatzea, alde baterako edo besterako presiorik izan ez dadin gazteen baitan.

—Halere, gauza martxan hasten delarik, ongi ikusten da gurasoekin zenbait har-eman.

Hona hemen oraingoz dagoenaren berri.

72-X-5.an

Arazoaz jakin erazteko modukoa deritzat idazkiari.

AMUNSA

USTE GENUEN...

Kristo il zanetik, piztu bitartean, lur jota zeuden Ikasleak. Aien giro latza Emausko bi ikaslerengan ongien ikusten dugu: «Jesus Nazaretarra, Jainko eta erriaren aurrean egitez eta itzez gizon azkarra. Baiña gure apaizburu eta nagusiek beretzat eriotzarako epaia iritxi eta gurutzetu egin dute. GUK USTE GENUEN, Israelgo Erreinua berriro gure artean jarriko zuela, BAIÑAN...

USTE GENUEN... Esperantza galdutakoen itza. Itz tristea.

USTE GENUEN... Batikanoko Batzar Nagusiak itxaropen gozoak sortzerazi zituen askoren biotzetan. USTE GENUEN, guztiz ongarriak izango zirala bere erabakiak Eliza eta gizartearentzat. USTE GENUEN Elizaren aldaketa eta eraberritzeak guztiz bikaiñak izango zirala. URTE GENUEN gure Eliza, beartsu eta oinperatuen Eliza izango zala. USTE GENUEN gure Eliza, beartsu eta oinperatuen Eliza izango zala. USTE GENUEN tokian tokiko Elizak, Erromako Kuriaren zentralizazioa apurtuta, askatasun aundiarekin jokatukozuela. USTE GENUEN zuzentasunaren alde biziki jokatuaz, salatuko zituela gobernamentu zapaltzaileak. USTE GENUEN erri agintariekin dituan lotura mingarriak puskatuko zituela. USTE GENUEN, USTE GENUEN... BAIÑAN...

Ia leenean gaude. Mando zar baten pauso maqalak dira, aurrera Elizak egiten dituanak. Ustel atera zaizkigu itxaropenak. Oker jo digu kukuak. USTE GENUEN. Esperantza galduta, orrela mintzo diran askotxo, zoritxarrez, ezagutzen ditugu.

Elizaren eraberritze au makalegia zalata, Europa eta mundu guzian erantzule (contestatarios) asko genuen. Burruka aundia egiten zuten, baiña Eliz barnean. Euren kontura batzar zaratatsuak egiñaz, amaika buruauste Gotzaiei emandakoak ziran. Pentsaera ausartak. Jokabide berri-berriak Elizari eskatzen zizkiotenak. Eliza zaarraren erakundeei egin oi zizkieten salaketak. Erantzule aurreratuen aien artean ere bazen euskaldunik. Gure Erriko Elizaren izenean parte artu oi zuten emen eta an, Europan zear egin oi zituzten Batzarretan. Burruka ori guzia ordea, gaur eguneko Eliz-Instituzio-erankundeen barnean egiten zuten.

Gaur ordea, Zer gertatzen da? Txinparta eta sua daritela besteak datoz: eskubi-eskubikoak. Eraberritze aundienetakoa Elizarentzat nai zuten Erantzuleek, mututu bezela egin dirala, esango nuke. Ez dut uste leen aiña Batzar Aundirik egiten dutenik. Ez dut uste leen aiña Eliza salaketarik dagitenik. Gure Elizako gaurko erakundeetan burruka egiten aspertu egin dirala dirudi. Erre eta etsipenez jota, bear bada gaur arkitzen dira. Auetako bat edo beste ezagutzen dut eta beren pentsaerari, burrukan aspertutakoena deritzat: «Gaur eguneko Eliz erakundeekin zer egiñik ez dago. Gure burrukak, gure salaketak, gure borondateona Eliza eraberritzeko alferrikakoak dira. Esperantza guzia galdu dugu. Zer egiñik ez dago. USTE GENUEN... BAIÑAN...

Zer egiñik ez dagoela eta Erantzule auetako batzuek, gaur eguneko Eliza erakunde barnean lan egiteari utzi diote. Beren erara, Jerarkiarekin artu-emanik gabe, beren pentzaera eta jokabideak aurrera eramaten saiatzen dira.

Jokabide auetan geienetan apaizak ditugu tarteko. Erriko kristau geienek ezin kompreni dute apaizen aldaketa au. Minbera eta kezka bizia sortzen dute askoren biotzetan. Neroni ere negargurea biotz barnean sartzen zait auetakoren bat sentimentuz beterik datorkidanean: Zer da au? Nora goaz? Zer egin bear dugu?

Egia aitortzen dut: Elizaren onerako benetako Erantzule izandakoak, geien, eurak minberatu eta atsekabetu dira beren bizitzaren aldaketarekin. Jokabide berriari eldu aurretik amaika kezka eta larritasun izan dute. Aurrera egin badute, beren barru-kontzientziak aginduta egin dute. Beren jokabideak beste biotz asko larritu dituztela? Bai noski; beren ustetan ordea, eurak eta errian beste askok daramazkiten naigabemiñak guztiz dira bearrezko Elizaren onerako.

Gaur eguneko erakundeak utzi eta beren bideari eldu diotenak errespetatzen eta maitatzen ditut. Auetako bat baiño geiago adiskide dut. Neure burua ordea illunpean ikusten dut eta ezin naiz argitu. Eliz barnean beti izan dira nere ustetan erantzuleak. Auen artean Santu aundiak ere bai. Espiritu Santuak eraginda, bere garaian Asisko Prantzizko erantzule zan eta Eliz Agintariek makilatu gabe ezzuten utzi. Burura auxe datorkit: Eliza barnean, gaurko erakunde barnean, Jerarkiaren mende, burrukalari eta erantzule izatea, ez al da oso zailla? Erakundeetatik kanpora burruka ez ote errexago? Sinismenez, Profetismo batean erakunde barneko burrukalariek makilatu eta martirazatuagoak, ez ote izango? Jainko Erriaren onerako, zer obea? Kanpotik ala barrutik egiten den burruka? Negarrez ereiten duenak, pozean uzta bilduko duela, dio Liburu Santuak.

Gaur egia osoa arkitzea ez da erraza; nik ikusten ez ditudan arrazoiz bultzaturik jokatu duzue noski. Dena dela, zuen eta gure Elizaganako maitasun utsez egiña duzue nere gaurko au.

AROSTEGITAR JOKIN

(c) Ministerio de Cultura 2005

HAZPARNEKO "Elgar Oinkari"

Euskal dantzen bide berri bat?

Gaurko onetan Donostian, parte zaharrean izan naiz. Donostian eta euskal giroan ain ezaguna den Joxemari Arregiren etxean solasaldi eder bat egin dut. Gizon au dugu, ain zuzen, Lapurdiko Hazparneko dantza taldearen zuzendari. Eldu den igandean, Urriak 29, eguardian, izan ere, Victoria Eugenia antzokian jaialdi bat eskeniko digu. Jaialdi nori aitzakitzat arturik, euskal dantzaz luze mintzatu dugu. Bere iritziak zenbaitek onartu eta beste zenbaitek baztertuko ditu baina interesgarriak ez direnik neork ez du esango. Ni aalik eta egokien azaltzen arduratuko naiznere iritzirik ezertarako eman gabe. Iritzien zuurtasunez irakurleak epaituko du.

—Elgar Oinkari» taldea noiz eta nola sortua izan zen?

—Dantza talde bezala ez da oso zaharra eta gutxiagorik ere. Talde au duela bi urte sortu zen. Jesus Luisa Esnaola izan genduen sortzaile eta egile berezia.

—Jesus Luisa Esnaolaren izena bein eta bitan entzun arren, bere berri andirik ez datkit...

—Gizon au jatorriz Erroterikoa zen, naiz gero guda sortu arte beintzat Donostia bizi izan. Bera izan zen Bizkaiko ezpatadantzari batasuna eman ziona. Erbestean, gudaz gero sortu zen «Eresoinka» taldeko dantzarien buru ere bera izan zen. Dantzari ona, erakustaile egokia eta euskal giroa dantzarien artean supertzen apartekoa zen.

—Dantza grina, barnean, jaiotzatik zeraman orietakoa beraz...

—Begira, gizon onek beharrak ala agindu eta Mexicon bizi izan zen baina bere azken egunak bere lurrean igaro nairik itzuli zanean Ipar Euskalerria beste asmorik ez zuen dantza talde bat osatu baizik. Gaztetan lan egin zuen alorrean berriro lan egin nai zuen, eta egin ereegin zuen. Hazparnen neska talde bat soru aal izan zuen, eldu den igandean dantzatuko duen taldea. Bera ez dugu gure artean izango. Zoritxarrez, duela gutxi, eriotzak beste mundurako arrapatu zigun.

—Alaz ere zuek aurrera jarraitzen duzue. Baina gaiari jarraituz... zuen taldeak zer berezitasun du? Lapurdiko dantzak dantzatzen dituzute ala...

—Galdera oni erantzuteko irrikitzen nengoen. Beste dantza talde folklorikoen gizasoak ez gara gu. Gu ez gara talde folkloriko bat. Guk ez dugu lehengo euskal dantzarik dantzatzen.

—Zure erantzunak arriturik uzten nau...

—Ara, guk ezditugu ez Gipuzkoako, ez Lapurdiko eta ez Euskalerriko beste inongo dantzarik dantzatzen. Talde folklorikoa ez ginela orregatik nion. Guk dantza berriak sortu ditugu.

—Onela jokatzean beste taldeen jokabidea kritikatzen duzuela dirudi...

—Ez eta gutxiagorik ere. Beste taldeek egiten dutena egokitzat bakarrik ez, beharrezkotzat jotzen dugu. Leengo dantza zaarrak gorde eta indartu egin bear dira. Dantza zaar asko dago gainera erdi galdurik Euskalerriko bazteretan. Dantza oriek jaso eta dantzatuko egin bear dira. Talde folklorikoak zenbat eta uguariago eta obe.

—Zuek sortu dituzuen dantzak euskaldunak al dira...

—Ezpairik gabe. Guk ez dugu ortan dudarik. Gure iturria, Izan ere, dantza zaarretan dugu. Dantza zaarrak dira gure dantzen oinarri. Dantza oriek dituzten pausoez ballatuz egiten dugu guk gure dantza berria. Leengo dantzen muina biltuz eta jasoez dantza berria moldatzen dugu, expresio berria ematen diogu. Euskal sustraiari jarraituz ari gara beraz lanean.

—Dantza bakoitzak bere asmo edo elburua izango duba...

—Bai, ori da. Asmo ori abestiak adierazten digu. Abestia esatean musika bakarrik ez, musika eta itzak, biat bat esan nahi da. Izan ere guz erriak abesten dituen abestiak artu ditugu gure dantzen oinarritzat.

—Zer nolako abesti...?

—Denok ezagutzen ditugun abestiak: Goizian goizik jeiki ninzundun. Txoritua norat hua; Iruten ari nuzu; Txarmagarria; Donostiako Iru damatxo t. a...

—Erriak abesten dituen abestiak zuek, beraz,, dantza mailan azaltzen dituzue?

—Bai, ala da baina guretzat dantzak eta abestiak bat egin dan joan bear dute. Esan nai da, dantzatu bakarrik ez, abestu ere egiten dugulua. Baina ez du koru batek abesten. Denok abesten dugu. Denok abesten dugula esatean ikusle eta dantzari esan nai da. Denak parte artu bear dute. Erriak abeste, erriak parte artu bear du. Turistentzat ez dugu dantzatzen.

—Zuen egiten duzutena ez da ikuskizun edo espektakulo bat bakarrik.

—Gure jaialdia ikuskizun xoila izaterik ez genduke nai. Ikuskizun bat bada. Ori ez dago ukatzerik. Ikuskizuna gaindu egin bear da ordea. Ikuslea egile biur nai genduke. Ikusleak abestu eginbear du. Jaialdian barnean sarturik, berak ere bere sentimendua azaldu egin bear du. Euskal giroan murgilduz arnas berrituta atera bear du jaialditik.

—Zerk du orduan garrantzi andiagoa, abestiak ala dantzak?

—Ez dakit zer erantzun, biak ain loturik eta josirik ikusten ditut... Guk pertsona osoa nahi genduke trantzean jarri. Orduan dantzaz, musikaz eta gorputzaren expresioz baliatzen gara. Orain arte dantzatu bakarrik egiten zen. Gure artean, gorputzak ez zuen expresiorik. Guk sortu ditugun dantza auetan sinu eta jiteen bidez gorputz oosari parte ar erazi nai diogu.

—Zer arrera izan duzue orain arte?

—Oso kontent gara. Erriak oso ondo eratnzun du. Lapurdi eta Baxe-Nafarroan ibili gara batipat. Eta egia esan, erriak oso ederki parte artu du. Askoz zailagoa zen, aurtengo udaran Munichen alemandarrei parte artu eraztea. Alaz ere Bavierako jendeak asko maitatu zuen dantzatk. Experientzia ori oso ona eta interesgarria izan zen. Datorren udaran Beljika aldera joateko indar berriak ematen dizkigu.

—Galdera xelebrea da, baina zergatik zatozte Donostiara?

—Bi arrazoi ditugu Donostiara etortzeko. Bat, Donostian euskal dantzez dakien jende asko da. Jende orren iritzia artzera gatoz. Beste modu batetara esateko, examin bat pasatzera gatoz. Donostian onartzen bagaitue Euskal-Erria guzian onartuko gaituzte. Bigarrena, Jesus Luisa Esnaolari omenaldi bat egin nahi diogulako da. Bere gogoa talde onek Donostian dantzatzea zelarik, bere gogoa bete nai izan dugu.

—Donostirako dantza berezirik ba al duzute?

—Bai, badugu zerbait berezia Donostirako. Sarriegi jaunaren Inudiak eta Tanborradako musikaz baliatuz dantza batzuk moldatu ditugu. Dantza orlek Donostierren artean zer arrera izango duten jakiteko irrikitzen nago. Baina ori datorren jaian ikusiko dugu.

—Gerora begira, zuen lan onek irteerarik ba al du?

—Gauza bat argi eta garbi esan bearra dago. Gu egiten arigarena asiera bat besterik ez da. Gu bideak urratzen asi gara. Irteera bezala berriz nik oos andia ikusten dut. Orain badira abesti berri asko. Abesti oriez baliatuz dantza asko eta asko egin daiteke. Dantza batzuk onak izango dira, besteak txarrak. Baina piskan piskana gauzak tajutzen joango dira. Ori arriak esango du.

—Zure experientzia beste taldeetara ere zabaldu nai zendukeela dirudi.

—Orixe baietz. Guk ez dugu gure baitan ezer gorde nahi. Daukaguna besteei emateko prest gaude. Gu baino modu geiago, erreztasun eta abilidade geiago dutenak izango dira eta oriengana zabaldu nahi genduke. Beste taldeek bide orri eltzen diotela ikustea izango litzake guretzak pozik andiena.

—Bide orri eldu nahi dienei zer eskatuko zenieke?

—Euskal biotza leenik eta bigarren. Gero euskal dantzak ondo mederatu. Euskal dantzen berri ondo jakin. Azkenik teknikaz ondo jantziak izan. Iru gauza auek elkarturik izan bear dute. Bestela jai dago.

Ontan bukatu genduen gure solasaldia. Datorren jaian, Urriak 29, eguardian Victoria Eugenian egingo den jaialdiak zerbait berririk ekarriko diguen jakiteko minez gelditu naiz. Euskal dantza beriak sortzea izan ere ez da txantxetako gauza. Dena den, eztabaidak ugari izango dira...

D. UNANUE





(c) Ministerio de Cultura 2005